

9EH1 EUSKARA MERKATARITZARA

getxo euskalduntzeko hitzarmena



Errotuluak euskaraz edo ele bietan ipintzeko diru-laguntzak.

gehi@getxo.net: testu komertzialen itzulpena eta maketazioa, doan.

Euskara ikasteko diru-laguntzak saltokietako langileentzat.

Material idatzien katalogoa: merkealdietarako kartelak, fakturak, faxak...



UK galeria > Willy Uribe



Apenas hogei urte zituenen hasi zen Willy Uribe (Bilbo, 1965) argazkiak ateratzen. Algortako Irudi Taldeko kidea izan zen eta 1989an Irudi eta Soinu Tekniko titulua eskuratu zuen. Surfzale amorratua 1990ean Marejada Surf aldizkaria editatzen hasi zen. Ondoren eta ia hamar urtez argazkilari aereo moduan lan egin zuen Bilboko FOAT enpresan; 2.500 ordu baino gehiago eman zituen hegan argazkiak hartzen. 1989az geroztik bere pasioari -hau da, surfari-berrero eutsi eta argazkilari eta kazetari freelance profesional modura dihardu. Bertako zein atzerriko makina bat aldizkariren kolaboratzailea da. Literaturgilea ere bada Uribe eta dagoeneko lauzpabost liburu argitaratu ditu, besteak beste, *Cuentos revueltos*, *Ciudad Biboa...* azkena *Nanga* du izena.



Bilbo

«Zakurrak dirurik balu, *Don Zakur*» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Punta Galea. Alfredo Aldai.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Telletxe kalea, 1979-2007.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Julia Lerraren ondorengoak. Asier Mentxaka.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Aratusteak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Erandioko sardinera.
30. BERBETAN. Julen Ballestero, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Lisboa, Asier Bastida.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Eutsi!* filma.
43. MUSIKA. Getxoko fonoteka. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Maldetan sagara* liburua. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Galeako surf txapelketa.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Aitor Gurtubay, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Non erosi? Adibidez, Sagar dendan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopelako eskolako neskatilak, 1942. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Itziar Lazkano, Maitane Nerekan.



30 Julen Ballestero



11 Aitor Gurtubay

Berbetan

Erandioztarra, Gurutzetako, hau da, Euskal Herriko ospitalerik handieneko zuzendari medikua da. Bere bulegoan hartu gintuen.



11 Lerraren ondorengoak



30 Lisboa



14 Guaitoak



54 Itziar Lazkano

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentkaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egunola, Xabier Silitao, Oskar Fernández, Unai Ametzaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



gugeu

Amets egin


Lotan, irudimenak sortzen dituen gertaeren edo irudien multzoa; itzarririk erazten den irudipena, desira biziak eraginik; gertagaitza izanik ere, gertatzea nahi den gauza. Horixe da *ametsa* Hiztegi Entziklopedikoaren arabera.

Aldizkariaren zenbaki berri bati ekin behar diogun bakoitzean, zehazki definitzerik ez dakigun beldur antzeko bat jabetzen da gutaz sarritan, idazleek folio zuriaren aurrean sentitzen ei duten ikara horren antzeko bat izango da nonbait. Aldizkaria betetzeko behar beste istorio, eduki topatuko al ditugu? Kapaz izango ete gara beste UK bat osatzeko? Horrenbesteko ematen du gure eskualde txikiak?... Zorionez baikortasuna gailentzen da azkenean beti. Eta nagiak astindu eta gero, begiak ondo zabaltzen ditugu atzera eta jakinminez eta gogotsu erreparatzen diogu berriro ere bizitzari. Eta gure inguruan amesteko gauza den makina bat lagun badela ohartzen gara. Eta segituan, lagun horien bila abiatzen gara zuoi horien berri emateko. **Julen Ballestero** Gurutzeko zuzendari medikua ezagutu ahal izan dugu, danontzako osasun sistema publikoarekin amets egiten du berak; **Aitor Gurtubay** arkitekto gazteak, bizileku perfektuarekin amesten du; **Sagar** dendakoek osasun onarekin...

Ametsen berri ematen ahalegintzan gara UK-n; gu amesten segitzeko, zuok amesten jarrai dezazuen. Amets egitea gauza handia da. ⁴

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

Velux

Ekintza medioatiko-komertzialen zale ez naizen arren *Velux 5 Oceans* izeneko probak erabat txundituta naukala onartu beharrean nago. Milaka eta milaka kilometrotan zehar, itsasoko olatutzarrak, haizea eta ozeano handietako izakiak lagun dituzten marinelen kemenak naturaren parean zein txikiak garen gogorarazten dit, baita “ondo amueblatutako” buru bat zer egiteko gai den pentsarazi ere. Eguneroko erronka eta arazo txikietan itotzen garenean bizirauteko gau eta eguneko borroka latzean dauden bost skipperrak gogoratu beharko genituzke, geu ere edozein arazo gainditzeko kapaz garela jakiteko. Zenbat eta handiagoa erronka orduan eta garrantzitsuagoa bertatik aterako dugun irakatsia. Alexis Carrelek zioen moduan: “Gizakiak ezin du bere burua sufrimendurik gabe landu; aldi berean eskultura eta eskultorea da eta”. ⁴



GALEA, 2017KO OTSAILAREN 11

Olatuari eutsi! / Ausarta da gizakia, gero! Punta Galea Big Challenge exapelleran itsasoak erakutsi zuen grinaren adierazgarri daukazue irudi hau. Zaldun beldurgaitzak ohola hankartean zutela egin zioten aurre ur basatien indarrari, baina letren eta irudien -kazerarien- gudarostea armada seguruagoa izanda ere, larri ibili zen. Esan ohi da ausartzen ez denak irabazteko duena jasozteko aukerarik ez duela, baina gizakiak sarrigi ahazten du bera baino abalmen boteretsuagorik badagoela! Ahaztura ez da sekula bidaia lagun ona izaten... Batzuek ez dute inoiz ahazturiko Galeako olatuetan bizitakoak! ^m / Argazkia: **Alfredo Aldai**

Eskegi sukaldean UKren *barazkien posterra*

Zelan eskuratu?
Zatoz UKren bulegora*, eskatu eta kitto!

Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Barazki guztien izenak (euskaraz, gaztelera, frantsesez eta izen latinez) eta eurak jateko sasoiak.


Argitaratzailea:
UK aldizkaria

Babesleak:
Getxoko Udaleko
Euskara Zerbitzua
BBK

* bulego ordutegia:
goizez 10:00-14:00 / arratsaldez 15:30-18:00



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



Iraganez doa denbora* beti / TELLETXE KALEA 1979-2007

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > gure eskuetan dago

Itsasadarra Lamiakon

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Eskuarekin estali itsasontzitik gorako guztia

Doinua: Itsaso horrek gordetzen ditu

Itsasoaren kulun-kuluna,
kresala usain gozoa,
aparra brankan, lanpernak popan,
kaio urrutien soa,
olatuen erasoia,
naturaren ur basoa;
Eguzkiaren isla ispilu,
begi distira lausoa,
ur azalean unibertsoa,
urpean mundu osoa,
ederra da itsasoa!

Eskuarekin estali txalupa

Doinua: Haurrak zatitu, haurrak bahitu

Noeren arka metalikoa,
LEGOzko ontziteria,
Singapur, Kito eta Santurtzi
batzen dituen zubia,
kaira heltzean zabaltzen zaio
erraietako zauria,
atzaparka garabia,
lehengo barku tripa-handia
osorik hustu da ia...
Ur azalean petrolioia,
urpean hondamendia,
sekula ere ez da gelditzen
olatuen lantegia!

Irudia osorik ikusita

Doinua: Leiho ertzetik

Zerua burniz iltzatu dute
uridin izana luzaro,
lehen ostertza zegoen eta
orain lantegi bat dago,
arrainak orain kaxatan datoz
aske zebiltzan lehenago,
garabiak alboz albo,
kaioak kaien esklabo,
batzuetan hain argia eta
besteetan ilunago
mundu nola ikusten dugun
gure eskuetan dago.

bidegorriak > bizikletaz egiteko ibilbideen gida argitaratu du AldundiakInformazio gehiago www.bizkaia.net webgunean

2003-2016 Bizikleta Plan Nagusiaren barruan, gure lurralde historikoko bizikleta bideen mapa argitaratu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Bizikletaren erabilera garraio bide gisa, aisialdirako eta zaletasun gisa sustatzea da egitasmoaren helburua. Kaleratutako mapak eginda dauden edo momentu honetan eraikitzen ari diren bideez gain, plangintza fasean edo proiektuan daudenak ere erakusten ditu (horiek ezberdintzeko hainbat kolore erabili dira). Horrez gain, bizikletaz egiteko ibilbideen liburuxkak ere kaleratu ditu Aldundiak. Guztira, zazpi ibilbide eskaintzen ditu, tartean Areetatik Algortako Portu Zaharrera eta Bolueko hezegunera doana. Bidearen zailtasuna, leku batetik bestera heltzeko denbora, hura burutzeko gomendatutako bizikleta mota eta bidean aurki ditzakegun leku interesgarriak dira, besteak beste, gidak aipatzen dituen gaiak. Bizikletan ibiltzeko aholku orokorrak ere ematen ditu liburuxkak. m

getxo > gauza galduen zerbitzua online eskaintzen du UdalakZerrenda www.getxo.net webgunean ikus daiteke edo bestela 94 466 02 02 telefonora deituta

Kalean zerbait galduz gero, ez larritu; gauza galduen zerbitzua online eskaintzen du eta Udaltzaingoaren bitartez Getxoko Udalak. Hain zuzen ere, udalerriko webgunean sartu eta topatu diren objektu guztien zerrenda berehala ikus dezakegu. Nortasun agiriak, giltzak, betaurrekoak eta diru-zorroak dira jendeak gehien galtzen dituen gauzak; hala eta guztiz ere, bitxikeriaren bat edo beste ere aurki dezakegu, kasko bat esaterako. Galdutakoak non eta noiz topatu dituzten zein horien deskribapena eskaintzen du zerbitzuak, hala nola, hura identifikatzeko zenbaki bat. Era berean, zerbait galdu ez baina zeozer aurkitzen duenak Udaltzaingoaren bulegoetara jo dezake objektua bertan uzteko eta, horrela, jabeari buelta diezaioten. Gauza batzuek balio sentimental izugarria daukatela jakinda eskertzekoa da Udalak mota horretako zerbitzua herritarren esku jartzea. m

sai az getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

korrika > andrazkoen euskararen aldeko lana goraipatzeko kanpaina



Korrika 15ek euskal emakumea omenduko du, hizkuntzaren transmisioan eduki duen garrantzia goraipatu gura duelako. Horretarako, manifestua idatzi dute ekimenaren antolatzaileek hainbat belaunaldi, adin, mota, esparru eta ideologiatako euskal emakumeek zein gizonek omenaldiari euren atxikimendua adierazteko aukera eduki dezaten. Milaka sinadura batzea da Korrika 15en helburua, euren esanetan, *“garai ezberdin eta zailtan gure hizkuntza etxean gorde, atxiki eta ahoz aho iraunarazi duten emakume ezagun zein ezezagunen lana aitortzeko eta etorkizunean haien lanari eusteko konpromisoa hartzen dugula adierazteko”*. Sinatzeaz gain, gure inguruan ekimen honen berri ematea eskatu dute eta UKn horrela egin dugu, emakumeek egindako beharraz bat gatozelako; izan ere, euskarak iraungo badu, guri dagokigu lekukoa hartzea. Sinatu barik lotuko zara? [m](#)

Sinatzeko www.korrika.org webgunera jo

agendak > kultur eskaintzaren berri ematen dute hilero udalek



Hileko ekitaldi kulturalen berri emateko, gida eta triptiko dotoreak argitaratzen dituzte Uribe Kostako hainbat udalek. Egunero egongo diren ekitaldi zein ikastaro garrantzitsuenen informazioa irakur dezakegu horietan: musika, zinea, antzerkia, hainbat elkarte antolatutako tailerrak... Garaiazen arabera, gainera, jaietako egitarauak ere argitaratzen dituzte. Leioako eta Getxoko agendak dira garrantzitsuenak eta bertokoa izanez gero, etxean jasotzen dituzu. Alabaina, herri horietan bizi ez bazara ere, horiek jasotzeko aukera daukazu; izan ere, udalerri horretako ekintzak edonori interesgarriak gerta dakizkioke. Leioako kasuan, gainera, informazioa www.kulturleioa.com-en eskura daiteke eta bertako newsletterra jasotzeko harpidetza egin, astero programatzen dituzten kultur jardueri buruzko informazioa jasotzeko. [m](#)

Agendak eskatzeko: 94 491 40 80 (Getxokoa) eta 94 607 25 70 (Leioakoa)



“Beharbada, Udalak gehiago egin beharko luke aratusteak sustatzeko, ezkerrean egiten duten bezala”. Maria eta Ines sopoloztarrak

María Martínez eta Ines Gomez > Julia Learraren ondorengoak

Ileorde, oihal eta antiojo artean topatu ditugu Maria eta Ines. Larrabasterran bizi diren arren, 34 urte daramatzate Algortako Julia Learra moztako dendan beharrean. Sortzaileak eman zion izena dendari: *“1918an ireki zuen denda Juliak; gero bere seme-alabek jarraitu zuten eta, azkenik, oinordeko gehiago ez zituztenez geuk jarraitu genuen”*. Garaiekin batera aldatuz joan da: *“Denetarik saldu da hemen: hasieran estankoa zen; gero, Frankoren garaian, mertzeria izatera pasatu zen eta, azkenik, moztaroen eta euskal jantziekin lanean hasi ginen”*. Ondo baino hobeto moldatzen dira Maria eta Ines betaurrekoak, pailaso sudurrak eta plastikozko polizia kapelak saltzen. Hala ere, lehenengoari ez da hori gehien gustatzen zaiona: *“Nik arrantzale eta baserriar trajeak saltzen gozatzen dut gehien”*, baina fundamentuzko jantziak saltzen ditu Mariak, *“ez dut ulertzen gaztetxoak arrantzale gonon bila datozenean eta gona motz eta kamiseta txuriz jantzita doazenean. Hori ez da arrantzaletz jantzita joatea!”*. Algortarren originalatsun faltaz ere berba egin digute: *“Neskak betaurreko eta ileordeekin konformatzen dira. Mutilak pixkat originalagoak izaten dira, barregarriagoak”*. Dena den, gazteen alde egiten dute moztako kontuan: *“Ama askok baino gauza konplexuagoak egiten dituzte gazteek”*. [m](#) Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Ingurugiroari kaltea gutxituz

27.604 tona hondakin batu zituzten iaz, horietatik **5.412 tona birziklagarriak** izan ziren; hala, birziklapenak **%3,5 egin zuen gora** eta 2005agaz alderatuz **7 tona hondakin gutxiago** sortu ziren

Ingurugiroko zinegotziaren ahotan datuak onak dira, "arau orokorra betetzen dabilelako apurka: gutxitu, berrerabili eta birziklatu". Udalerrian pasa den urtean batutako hondakinen eta birziklatzera bidalitako datuak hala baieztatzen ei dute. 2005ean baino 7 tona zabor gutxiago (%20 gutxiago) eragin zuten getxoetarrek iaz, eta birziklatzeko batutako gaiek guztira %3,5 egin zuen gora.

Joan den urtean 27.604 tona hondakin batu ziren udalerrian, horietatik 22.192 tona zaborteagira bideratu zituzten, eta gainontzeko 5.412 tonak birziklatu egin zituzten.

Gaikako birziklapenari dagokionez, ontziena hazi zen gehien; izan ere, 782.340 kg batu ziren aurreko urtean baino %17,25 gehiago. Horien ostean ehunaren birziklapena igo zen gehien %4,95, guztira 239.313 kg bildu ziren, eta hirugarren postuan agertzen da biziklatutako beiraren kopurua: %2,48 egin zuen gora eta 1.351.834 kg batu ziren. Hazkunde txikiagoa izan bada ere, %1,03 gora egin zuen birziklatzeko paperaren kopuruak eta 3.031.312 kg bildu ziren guztira. Ostera, birziklatzera eroandako pilen eta fluoreszenteen zenbatekoak 2005ko kopuruaren antzekoak izan ziren iaz.

Getxoetarren birziklatzeko ahalegin horri esker Ingurugiroko zinegotziaren arabera "omina batzuk" eragin ditu, besteak beste: "42.434 arbola ez mozte, 903.230 metro koadroko basoa bizirik mantentzea, 15.155.00 kilowatioko energia aurrezte, 1.675 tona lehengai aurrezte,



Gaur egun herrian batzen den zabor guztiaren ia %20 birziklatzen da

metal pisutsu eta petroleo (757 tona) kopuru gutxiago erabili behar izatea, ehuna eta arropa berrenabili ahal izatea...".

Beiraren bilketan gehiketaren arrazoia, Burzakok azaldu duenez, hostakaritzoengatik izan daiteke "edukiontzien aldaketak erraztu egin dielako birziklapena". Bestetik pilentzako edukiontzia aldatu egingo dituztela azaldu

«CDentzako edukiontzi berriak ipiniko dituzte, eta pilenak ikusterrazagoak»

zuten udal arduradunek, erakargarriak eta ikusterrazagoak izan daitezten, bilketak gora egin dezan. CDak biltzeko edukiontzi berriak ere ipiniko dituztela jakinarazi zuten, "omnin udale-

txean, enikin publikoetan eta hezkuntza zentrotan daude CDak birziklatzeko edukiontzia", jakinarazi zuen Burzakok. m

Datu batzuk

- Guztira batutako hondakinak: 27.604 tona
- Zaborteagira eroandakoak: 22.192 tona
- Birziklagarriak: 5.412,5 tona
- Papera: 3.031.312 kg. %1,03 gehiago
- Beira: 1.351.834 kg. la %2,5 gehiago
- Fluoreszente: 1.580 kg
- Pilak: 6.160 kg
- Ontziak: 782.340 kg. %17,25 gehiago
- Ehuna: 239.313 kg. la %5 gehiago

Gazteei begira

Martxo, apiril eta maiatz bitartean 11 ikastaro eskainiko dituzte 5 euroren truke



Argazkilaritza digitala ikastaroak ere eskainiko dira

Dagoeneko iragari dituzte hurrengo hilabetearako gazteei begira udaleko Gazte Zerbitzuak antolatutako ikastaroak eta lantegiak. Martxoarako hurrengo da eskaintza: "Sukaldaritza: bizirauten ikasi" (La Sarten de Cordelerian -Areta-, 18-30 urte; gazte), "Zirkorekin has-tapenei buruzko ikastaroa" (Erromoko kultur etxean, 12-17 urte; gazte). Apirilean ondorengoak eskainiko dituzte: "Txapak, kamisetak... egin itzazu zure gustukoak" (12-17 urte, gazte) eta "Funky dantza" (Erromoko kultur etxean, 12-17 urte; eusk. edota gazte). Maiatzekoak hauek dira: "Astronomia" (Villamonten eta Galean, 12-17 urte; eusk. edota gazte), Tai Chi (Erromoko kultur etxea, 18-30 urte; eusk. edota gazte) eta "Margozketa kalean" (San Nikolas

plaza, 12-30 urte; eusk. edota gazte). Horrez gainera, hiru hilabete zehar luzatuko diren hurrengo ikastaro edota lantegiak ere emango dituzte: "Egur tailerra" (Zeramika taldearen egoitzan -Algorta-, 18-30 urte; gazte), "Inprobisazioa. Blues eta Jazz" (Riff eskolan -Algorta-, 12-20 urte; gazte), "Argazkilaritza digitala I" (Hobby & Art estudioan -Algorta-, 12-17 urte; eusk. edota gazte) eta "Argazkilaritza digitala II" (Hobby & Art estudioan -Algorta-, 18-30 urte; eusk. edota gazte). Amaitzeko, ikastaro edo lantegi bakoitzak 5 euroko prezioa dauka. Informazio gehiagorako edo izena emateko: 94 491 01 14, gaztebulegoa@getxo.net edota Gazteentzako Informazio Bulegoa (Tangora Etxea, Algorta). m

OSTATUEN BETETZE MAILA IAZ BAINO HANDIAGOA IZAN DA


2006an, Getxoko ostatuaren batez besteko betetze maila %68,29koa izan zen, hau da, aurreko urtean baino %7,14 handiagoa. Datu hori, beraz, Bizkaia izan zuen %56,89aren eta EAEko %58,67aren gainetik dago. 2002az geroztik izandako berreskuratze joerari eutsi ez ezik, hori gaintzea ere lortu da. Hazkunderik handiena abuztuaren gertatu zen, %18,47; Turismo Bulegoa ireki zutenetik lortutako emaitzarik onena.

UDALBIDE LAGUNTZEKO ASMOA AGERTU DU UDALAK

Udalbide lankidetzaren bidez laguntzen jarraituko du Getxoko Udalak. Iñaki Zarrakoa alkateak jakinarazi duenez, dirulaguntzak Auzitegi Nagusiak emandako arauen arabera emango dituzte, hau da, ekimen zehatz batzuk finantzatzeko dituzte, gobernu kanpoko erakundeak edo beste zenbait erakundegaz egiten den bezala. Hitzarmen horien artean, euskararen sustapena emango litzateke. Getxoko PPK, ordea, Udalbideri dirua ematen jarraitzea legeei iruzur egitea dela salatu du.

URTE BIRAKO HITZARMENA UK ALDIZKARIAK ETA GETXOKO UDALAK

Elkarlankidetzaren hitzarmena sinatu berri dute UK aldizkariak eta Getxoko Udalak. Aldizkariaren izenean Jokin Aspuru (UK-ko zuzendaria) eta Udalarenean Iñaki Zarrakoa alkateak sinatu zuten hitzarmena. Hitzartutakoaren arabera, datozen bi urtetan 60.000 euro emango dizkio Udalak aldizkariari bere lana gara dezan. UK-k bere partetik, hala nahi duten herritar guztiei aldizkaria etxera bidaliko die eta Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatutako ekimenen berri emango du bere orrialdeetan.



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Sahara

Bederatzi tona elikagai eta konpresa Getxotik Tindoufera

Getxoko Sahararen aldeko Atfal Elkarteak, Getxoko Udalaren, ikastetxeen eta zenbait erakunderen laguntzarekin, bederatzi tona janari eta konpresa bildu ditu Saharara bidaltzeko. 2005ean bildutakoaren bikoitza hain zuzen. Ekimen honekin, Tindoufen (Aljeria) errefuxiatutako saharauiek sufritzen duten egoera larriari aurre egin nahi diote Atfal elkarteok. Horrez gain, Getxoko Udalak

«Aurten ere gizarte eragileen eta getxoztarren erantzuna aparta izan da»

18.000 euro eman ditu eta honekin atoaia duen kamioi bat erosiko dute. Garapenerako Lankidetzaz Arloko zinegotzia Imanol Landak eta Atfal elkartebozaramailea Julio San Romanek esandakoaren arabera, *“gizarte eragileek eta getxoztarrek emandako erantzuna aparta izan da, beste behin ere, behar handiak dituztenekin, herri sabarrarekin kasu, beren elkatasuna enakutsi dutelako”*. Otsailaren 17an irten zen Donostiatik Sahararen aldeko III. Euskal Karabana. ^m

Haur saharauiak Tindoufen



Amigas y Amigos Algortean Guaitos elkartea

“Algortarron idiosinkrasia mantentzea eta gure ondarea azaleratzea da gure helburua”



Argazkian elkarte kide batzuk. Informazioa: www.guaitos.org eta sotavento@euskalnet.net

lazko urriaren 6an Amigas y Amigos Algortean Guaitos elkartea sortu zuen algortar talde batek, dagoeneko 40 bazkidek gora dauzka. Elkartekideen artean Manuel Aresti (presidentea), “Petiso”, Fede Bilbao eta Xabier de Araluze daude, eurek eman digute elkartearen helburuen berri.

—Zergatik sortu duzue elkartea?

—Getxo irratiko elkarrizketan zenbait gauzetan hanka sartu zen aditzera eman zelako Getxoko Udalarekiko independente izendatzen ginela; hori ez da asmoa. Gura duenak parte har dezake, elkartea zabalik dago getxoztarrentzat, Uribe Kostakoentzat. Elkarte sortzeko jatorrizko ideia Manu Arestirena da.

—Zein helburu dauka zuen elkartek?

—Nagusia gure ondarea berreskuratzea eta ezagutzera ematea da. Zenbat gauza ez ete dira egongo ostenduta, gordeta, ahaztuta... altxor eta aberastasun horiek herriari ezagutarazi behar zaizkio, gure ondarea delako; Algortaren idiosinkrasia mantendu, berreskuratu eta aldarrikatzeko beharrezkoak ditugu, hori argitara atera gura dugu: pintura, musika, literatura, jaiak, kirola... Berbarako argazki zahar batzuk utzi dizkigute, goitize-

nen zerrenda bat... Algortaren nortasuna azalerazi gura dugu, baina inor baztertu barik. Areetarrek edota Andra Marikoek euren elkarteak sor ditzakete euren plazartzeko, guk Algortar dugu mugarri. Baina Algortar Getxoko zati ere badanez elkarte kide getxoztar oro izan daiteke, eta etorkinak ere bai! Ez dugu sexu, arraza, adin... bazterketarik egiten, argi alboratzen dugun bakarrik politika da. Ez dugu eskatzen Algortaren indenpentziarik! Auzoen arteko haserrikerik ez dugu gura! Ekimen guztiz plurala eta zabala da. Denak ez du politikagaz lotuta egon

«Elkartek ez du Algortaren independentziarik gura»

beharrik, beste aukera batek ere egon behar du, eta hori bilatzen dugu. Horrelako elkarte bat aspalditik behar zuen herri honek! Jaioberria da oraindik elkartea, apurka indarra hartu eta gero hasiko gara ekitaldiak antolatzen, bidaiari algortarren hitzaldiak adibidez; esan ohi da leku guztietan aurkituko duzula galiziar bat, guk diogu leku guztietan algortar bat badela! Ikusteko dago ilargian ere algortar bat egongo ete den! (kar, kar, kar). ^m

Martxoak 8, altxa ahotsa!

Oraindino badaukagu zer aldarrikatu; horregatik hamaika ekitaldi iragarri dituzte



Pasa den urtean martxoaren 8an emakume talde batek egindako horma-irudia

Ospatzen genuela ahaztuta izango dugun egunaren bila pausotxo emango dugu aurten ere. Laster martxoak zortzigarrena beteko duenean, beste behin, Emakumeen Eguna aldarrikatuko du nazioarteak, eta gurean ere ez da hamaika soineko desberdinez jantzitako aldarrikapen zein salaketa ekitaldirik faltako.

Herriko emakume elkarteek eta Getxoko Udaleko Berdintasun arloak Emakumeen Jardunaldien egitaraua prest dute dagoeneko. Martxoaren 8rako hurrengo antolatutako dute: goizean horma-irudia osatuko dute eta ostean luntxa (San Nikolas plaza), arratsaldean “Iratzaririk” solasaldia (Erromo, 18:00) eta elkarretaratzea Arriagan (Bilbo, 19:30). Alabaina, beste zenbait ekitaldi egongo dira hilaren 1ean hasi

eta 28ra bitartean, berbarako: Gizatiar elkartearen ekimenez “Emakumea zinean” hitzaldia (Erromoko kultur etxean; hilak 1, 18:00); “Emakumeen elkartegintza Bizkaian, hurbilketa historikoa” erakusketa (Erromo, hilak 5-16); “Emakumeak eta politika erabakien esparrua” berbalde-egutegia (Erromoko Nagusien Etxea, hilak 6, 19:00); *Palascarna eta bide bat* antzerki lana (Getxo Antzokia; hilak 9, 19:30); *Egutegiko neskak* zine emanaldia (Erromo; hilak 15, 18:00); Berdintasun politiken gaineko prestakuntza saioa (Villamonte; hilak 19 eta 26, 10:00-12:00) eta Getxoko Mendeko Pertsonen Zaintzarako Dekalogoia ere aurkeztuko dute (Villamonte; hilak 28, 19:00). ^m

OBABA PELIKULA ESKAINIKO DUTE OTSAILAREN 28AN GETXO ANTZOKIAN

Montxo Armendarizek zuzendutako eta Bernardo Atxaga idazlearen ipuin bilduma-eleberriaren oinarritutako pelikula emango du Zine-klubak. Hileko azken egunean, eguaztena, dauka hitzordua oraindik filma ikusi ez duenak Getxo Antzokian (19:30). Sarrerak ohi legez 2,90 euroko prezioa dauka.

KULTUR ETA KIROL EKINTZETARAKO 515.000 EURO EMAN DITU UDALAK

Tokiko Gobernu Batzordeak 515.000 euroko laguntza bideratuko du udalerriko kultur eta kirol elkarten ohiko ekintzak gauzatzeko. Zenbatekoaren gehiengoa kirol arloan diharduten elkartei zuzenduta dago, 420.000 euro banatuko dituzte-eta kirol elkarten artean. Gainontzeko 95.000 euroak kultur elkarten artean partekatuko dituzte. Bestalde, diru-laguntzok jaso ahal izateko eskaerak martxoaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dituzte elkarteek.

UN PICASSO ANTZERKI LANA EGONGO DA IKUSGAI MARTXOAREN 10EAN

Getxo Antzokiko oholtzak *Un Picasso* antzezlan hartuko du martxoaren 10ean, zapatua. Arratsaldeko 8:00etatik aurrera Jose Sacristan eta Ana Labordeta aktoreek hartuko dute ikusleak gozaratzeko ardura. Sarrerak aurretik erosiz gero 12 euroko prezioa daukate, eta egunean bertan erosteko itzaroten duenak 15 euro ordaindu beharko du. Horrenbestez, sarrerak salgai daude dagoeneko. Bestalde, esan barik doa, Jeffrey Hatcherren testuan oinarritzen den lana gaztelaz izango dela.



GUZION ARTEAN HEZITZEN

- URTEBETETIK AUERRERA
- HAURTZAINDEGI LABORALA
- AUTOBUSA ESKUALDEAN
- JANTOKI ZERBITZUA

- ESKOLAZ KANPOKOAK (EUSKAL MUSIKA ETA KULTURA, HIZKUNTZAK, KIROLAK DENETIK SURF, MULTIKIROLA...)

ARENE AZPI, 15 - 48991 GETXO - TELF: 944 305 478 FAX: 944 305 477 - WWW.SANIKOLAS.COM

Ana Cespedes > Andrak elkarteko lehendakaria

“Emakumea pertsona moduan independente izatea gura dugu Andrak elkartean”

1990. urtean sortu zuen Leioako emakume talde batek Andrak elkartea. Orduan Sestaokoa zen emakumeen elkarte bakarra, beraz, Leioako andrak nahiko berritzaileak izan zirela esan dezakegu. Emakumeei etenbako heziketa eskaintzea eta horiek etxetik ateratzea dira elkartearen helburu nagusiak. Horretarako, makina bat tailer eta ekintza antolatzen dituzte. Martxoaren 8a egun handia izango da eurentzat.

—Noiztik zara elkarteko presidentea?
—Ene! ez dut gogoratzen, orain dela bost bat urtetik agian. Baina gobernu batzordean betidanik egon naiz, hasi ginenetik. Orduan gu eta Sestaokoak besterik ez genuden.
—Tailerrak antolatzen dituzue, ezta?
—Pilo bat gainera: aktualitatea (pil-pilean dauden gaiak lantzen ditugu), tai-chi, musikoterapia, dantza latinoak, soinketa, literatura tailerra, eskulanak, patchwork, psikologia tailerra, yoga... Emakumeak etxetik ateratzea gura dugu, familiaren eremutik apur bat irtetea. Horretarako, prezioak ere oso baxuak dira: urtean 10 euroko kuota sinbolikoa ordaindu behar dute eta ekintza bakoitzeko beste 10 euro. Arrakastatsuenak dantza, yoga, eskulanak



Argazkian, Ana Cespedes

eta soinketa dira.

—Martxoaren 8rako zoezer berezia presatuko duzue?

—Bai, Udalgaz lankidetzan jardungo dugu. Otsailaren 6an, 12:00etan, *Volver* pelikula ikusiko dugu Kultur Leioan eta Udalak hamaiketako batera gonbidatuko gaitu. Hurrengo egunean, Kultur Leioan ere, Lamiakoko Kafe Huts antzerki talde-

aren emanaldia ikusteko aukera edukiko dugu (18:00) eta, martxoaren 8an, tratu txarrak salatzeke elkarretaratzea egingo dugu goizean, Boulevarden, eta ondoren, 14:00etan jatekoa Derioko jatetxe batean. Azken hori da emakumeek ordaindu behar izango duten gauza bakarra. Bazkarian ehun bat emakume batzea espero dugu (elkartekoa ez den emakumeren bat ere etorriko da).

«Jende gazte gehiago hurbiltzen da gaur egun»

—Jende gaztea elkartera erakartzea gaxagoa izaten da?

—Azkeneko urte hauetan jende gazte gehiago hurbiltzen dela sumatu dugu, batez ere, yoga, tai-chi eta dantza ikastaroetara. Bazkideen batez besteko adin tartea 40-50 urtekoa da, baina 20 eta 30 bitarteko pertsona gehiago dago orain. Ez da gatxa jende gaztea erakartzea, arazoa ordutegia da. Asteburuan irekiko bagenu, gazte gehiago etorriko lirateke.

—Zeintzuk dira zuen etorkizuneko proiektuak?

—Emakumea pertsona moduan independentea izatea gura dugu, ahal den neurrian behintzat. Analfabetoen getoak ez sortzea eta, batez ere, ondo pasatzea! m

Euskara plana

Udaletxeko langileen artean euskara sustatzeko egitasmoa abian inpini du Udalak



Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten langileak identifikatu dituzte Leioako Udalan

Hiru urtean zehar, Euskara Erabiltzeko Plana ezarriko dute Leioako Udalan. Aurretik indarrean zegoen euskara planaren jarraipena da hemendik aurrera udaletxeko langileen artean aplikatuko dutena.

Hasierakoak eskoletan, eskolaz kanpoko ekintzetan eta euskaltegietan euskararen ikaskuntza bultzatzen zuen bitartean, oraingo programak motibazioa eta hizkuntzaren erabilera sustatu gura du. Horretarako, udal erakinetako testuak, komunikazio materialak eta kartelak egiterako orduan erabiltzen diren irizpide linguistikoak berrikusi eta berriztuko dituzte.

Beraz, oraindik gaztelaniaz bakarrik dago-

en lanerako materiala hizkuntza bietan inprimatzea ekarriko du horrek. Horrez gain, Udaleko sailetan gehien erabiltzen dituzten berbakaz hiztegi txiki bat sortuko dute, langileei euren eguneroko beharra errazteko.

Era berean, zerbitzua euskaraz eskaintzen duten langileak identifikatuko dituzte, bizilagunek horiek ezagutzeaz gain, langile euskaldunen sarea sortzeko. Bestalde, plana dinamizatzeke, lan taldeak eratu dituzte Udaletxearen barruan.

Udaletriko edozein arlotan herritarrek euskaraz hartzea da ekimen berriaren helburua, baita administrazioan behar egiten duten pertsonen euren zereginak euskaraz burutzea ere. m

EMAKUMEEK OSATUTAKO ORKESTRAREN KONTZERTUA

Emakumeek soilik osatutako Camerata Euridice orkestrak kontzertua eskainiko du martxoaren 11n, Kultur Leioako Auditoriumen. Ekitaldia 20:00 hasiko da eta sarrera 6 eurokoa izango da. 2002an Bilboko Udaleko Emakumearen Zerbitzuaren ekimenez sortu zen Camerata Euridice. Orditik, lan handia egin du bai Euskal Herrian zein estatuan eta hainbat estilo landu ditu: orkestra tradizionala, aretoko orkestra vienarra...

DANTZA IKUSKIZUNAK ESKAINIKO DITU KULTUR LEIOAK

Kultur Leioak hainbat dantza ikuskizun eskainiko ditu martxoaren zehar. Lehenbizikoa, *Dueto*, martxoaren 1ean izango da. Idoia Zabaleta euskal koreografoaren eta Filipa francisco lisboarraren arteko lankidetzan proiektua da *Dueto*. Bestalde, martxoaren 8an, Ertza taldearen *Look* lana ikusteko aukera edukiko dugu. Gaur egun irudiak daukan garrantziaren inguruan jardungo du emanaldiak. Ikuskizunak 20:00etan hasiko dira, Auditoriumean, eta sarrera 6 eurokoa izango da.

COLECTIVO PUNTO ROJOREN ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN

Colectivo Punto Rojoren lanak ikusgai egongo dira martxoaren 5etik 25era Kultur Leioako erakusketa aretoan. Leon, Bizkaia eta Gipuzkoako bederatzi emakumeren proiektua da honakoa eta pintura, argazki, bideosorkuntza, happening, ekintza-performance, collage... bezalako teknikak erabiltzen ditu. Astelehenetik barikura, 10:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara; eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara egongo da irekita.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

[erandio]

Gerardo Franco > Alzaga abesbatzako zuzendaria

“Lehen **emakumeen abesbatzak** urriak ziren, baina gaur egun 11 talde gara Bizkaian”

Bilbo Argia otxotean eta Bilboko Koralean abesten du Gerardo Franco erandioztarrak eta orain dela hamar bat urte Alzaga abesbatza zuzentzea eskatu zioten emakumeen elkarteko kideek. Hamar dira, hain zuzen ere, abesbatzak aurtengo urrian beteko dituen urteak, beraz, zuzendariagaz egon gara ibilbidearen zein egitasmoen berri emateko.



Alzaga abesbatzakoak trebatze saio batean

—Zergatik emakumeak?

—Abesbatza Erandioko emakumeen elkar-tearena delako. 1997an hasi nintzen taldea zuzentzen eurek proposatuta. Beraientzat bakarrik ez, niretzat ere esperientzia berria zen abesbatzarena, ordura arte ez nuelako inoiz zuzendu. 25 emakume hasi ziren eta gaur egun 38 dira, elkartekoak guztiak.

—Zer abesten duzue?

—300 kantu baino gehiagoko bilduma daukagu, baina batez ere hemengo abes-tiak kantatzen ditugu. Euskaraz abesten saiatzen gara eta hainbat genero jorratzen dugu: erlijio musika, gospel, habanera, herri musika...

—Ze ezberdintasun dago gizonetako edo emakumeetako zuzentzearen artean?

—Alderdi guztiak ikusten ditut neuk, otxote batean eta abesbatza misto batean ere ibil-

tzen naiz eta. Emakumeak gizonak baino askoz konstanteagoak dira. Jakina, ez dizut isiltasunari buruz berba egingo, ur azpian ere berba egiteko gai direlako! Momentu onak eta txarrak daude, leku guztietan bezala, baina arazoak konpontzerako orduan gizonek baino erraztasun handiagoa daukate.

—Ba al dago Euskal Herrian emakumeek bakarrik osatutako abesbatzen ohitura alagizonen esparrua da oraindik ere?

—Lehen emakumeen abesbatzak urriak ziren, baina gaur egun 11 talde gara Bizkaian; ez da kopuru txarra! Gure elkar-tearen

barruan, gainera, emakumeen otxote bat dago, bakarra Bizkaian.

—Urteurrenerako zerbait berezia prestatuko duzue?

—Bai, oraindik zer egingo dugun zehaztu ez dugun arren. Ziurra den gauza bakarra Puidgerdako abesbatzagaz, Gorlizko Lirainegaz eta Xixongo Aduña abesbatzagaz udazken partean eskainiko dugun kontzertua da. Ekitaldi nagusia, beraz, zehazteke dago oraindik, baina agian Kanariar Uharteetara joango gara. ^m

Euskal doinuak

Bertoko musikak Erandioko kaleak beteko ditu **martxoaren 31n**



Euskal Herriko musikariak izango dira ardatz jaialdian

Euskal musikaren lehenbiziko jaialdia antolatzen lanetan buru-belari ari dira Erandioko Udalaren Kultura saileko arduradunak. Hitzordua datorren martxoaren 31n izango da, udaberriari bete-betean sartuta gaudenean hain zuzen ere.

Musika tresna ezberdinak jotzen dituzten Euskal Herriko hainbat musikari zein abeslarik hartuko du parte jaialdian (bertsolariak, dantzariak, alboka jotzaileak, gaita jotzaileak, txalapartariak, trikitilariak, txirulariak, txistulariak...) eta Alzaga kaleak beteko dituzte euren doinuakaz.

Ekitaldiak goizeko 11:30ean hasiko dira, Alzaga auzoan zehar musikari gonbidatuek

egingo duten kalejiragaz. Ondoren, 12:00etan, udalerrian jaialdirako bereziki prestatutako hiru guneean emanaldiak eskainiko dituzte parte hartzaileek. Honakoak dira kontzertuak eskaintzeko antolatzaileek aukeratutako lekuak: Ramon Rubial eta Anton Fernandez kaleen artean dagoen plaza, metro aurreko lursaila eta Irailaren 23a plaza. Horren ostean eta jaiari amaiera emateko (18:00), Irailaren 23a plazan ere, erromeria egongo da.

Guztira, 15 bat taldek hartuko dute parte jaialdian. Halere, parte hartuko duten musikariak oraindik zehazteke daudela azpimarratu dute Kultura saileko ordezkariak eta hori lotzeko lanean dihardutela nabarmendu. ^m

ERANDIOKO UDALA EUSKARAZKO EREDUEN ALDE

Bi eta hiru urteko umeak eskolaratzeko momentua laster helduko denez, horiek euskarazko eredueta matrikulatzeko kanpaina abian jarri du Bizkaiko hainbat udalerrik, tartean Erandiok. Iaz bezala, 1+1=bi leloagaz, euskarazko eredueta matrikulatzeak dakartzen onurak azalduko zaizkie ikasle txikien gurasoei; batez ere, etorkinen sendiei. Alkarbide Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak koordinatuko du sentiberatze-kanpaina.

JORGE BLANCOREN XVIII. MEMORIALA EGINGO DUTE ALTZAGAN

Atletismoko Erandio-Clubak Jorge Blancoren XVIII. Memoriale antolatuko du datorren martxoaren 4rako. Hainbat mailetako kirolariek parte hartu ahal izango dute Erandioko Alzaga auzoan egingo diren atletismoko hainbat probatan. Ekitaldiak 10:30ean hasiko dira, baina parte hartu gura duenak 10:00etan agertu beharko du probetan izena emateko.

APAIINGARRI ETNIKOAK EGITEN IKASTEKO TAILERRA

Martxoaren 14ra arte edukiko du gura duenak apaingarrri etnikoen tailerlean izena emateko aukera. Ikastaroa martxoaren 22an, eguena, egingo dute. Hiru orduko iraupena edukiko du, 18:00etatik 21:00etara. Gehienez 15 pertsonak parte hartu ahal izango dute (gutxienez, ordea, 8 pertsona behar izango dira klasea aurrera eramateko). Eskolak postetxe zaharreko eraikinean izango dira eta prezioa, berriz, 2 eurokoa errolatuentzat eta 3 eurokoa ez errolatuentzat. Azkenik, izena eman gura duenak Erandioko Gazte Informazio Bulegora jo beharko du edo 94 602 58 91 telefonora deitu.

Arasa
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

LURPEKO SASTARRONTZI BERRIAK IPINI DITU SOPELAKO UDALAK

Edukiontzia arruntek udalerriko zonalde batzuetan eragiten duten inpaktu bisuala dela-eta, lurpeko sastarrontzi berriak ipini ditu Sopelako Udalak. Besteak beste, Loroñon, Sabino Aranan eta Atxabiribilen jarri ditu ontziok. Politagoak izateaz gain, handiagoak dira sastarrontziak eta hondakin organikoak, plastikoak, beira eta kartoia batzeko balio dute. Udalak jakinarazi duenez, bizilagunek pozarren hartu dute neurri berria, mota horretako edukiontzia garestiagoak badira ere, ekologikoagoak direlako.

KIROL EKINTZEN EGUTEGIA KALERATU DU TURISMO BULEGOAK

Aurtengo kirol ekintza nagusiak batzen dituen egutegia kaleratu du Sopelako Turismo Bulegoak. Egutegiaren formatoa, aurreko urteetan bezala, surfeko taula bat da, hori da-eta udalerraren kirolik adierazgarriena. Gura duenak egutegia dohainik jaso dezake Udaletxeko eraikinean dagoen bulegoan; astelehenetik zapatara, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta, domeka zen jai egunetan, 10:00etatik 14:00etara.

SOPELA BERANGOGAZ LOTZEN DUEN ERREPIDEA INAUGURATU DUTE

Martxoaren 16an, inaugurazio ekitaldia errepidean bertan egin zuten, besteak beste, Miren Dobaran Berangoko alkateak, Jose Luis Bilbao ahaldu nagusiak eta Imanol Garai Sopelako alkateak. Bide berriak 400 metroko luzera dauka eta Berangoko Arabeta auzoa Uribe Kostako korridoreak Sopelako Urkon daukan sarreragaz lotzen du. 1.300.000 euroko aurrekontua behar izan da proiektua aurrera eramateko.

8.000 etxebizitza

Getxoren ondoren, eskualdeko bigarren zabalguner handiena eraiki gura dute Sopelan



Lurralde Plan Partzialak zeharo aldatuko du Uribe Kostaren itxura

Bizkaiko Foru Aldundiak diseinatutako Lurralde Plan Partzialari jarraituz, 5.500 eta 8.000 etxebizitza artean eraikiko ditu Sopelako Udalak datozen urteetan. Horretarako, orain arte indarrean zegoen araudia aldatu beharko du, eraikitze aukeratu dituzten lur eremu batzuk urbanizaezinak dira-eta gaur egun. Eraiki gura dituzten etxebizitzek erdi mailako zein maila altuko dentsitatea edukiko dute; hau da, lau edo bost solairuko etxeak izango dira.

Besteak beste, Barrika ondoan Plentziako errepidearen alde bietara dauden lur-sail batzuk eta Abaroa eremuak landak urba-

nizagarri bilakatuko ditu aldundiaren planak eta hektarea bakoitzeko 30-75 etxebizitza eraiki ahal izango dira.

Lurralde Plan Partzialak zeharo aldatuko du Uribe Kostaren itxura; izan ere, altuera bajuko urbanizazioak zein txaletak ekidin eta lur eremu handiak erabiliko ditu blokeak altxatzeko. Hain zuzen ere, Getxotik Lemoizerako bidean 35.885 etxebizitza egitea aurreikusten du Bizkaiko Foru Aldundiak. Getxoren ondoren, beraz, eskualdeko bigarren zabalguner handiena edukiko du Sopelak. Halere, gainerako udalerrien erabakiak itxaron beharko ditugu. m

Nöel Rubianes > dantza arabiarreko irakaslea

“Shakiraren pausoak ikasi gura dituzten emakumeak etorri zaizkit”



Txikitán dantza klasikoa egiten zuten Nöelek

Amak bost urtegarz apuntatu zuen Nöel Rubianes argentinarra dantza klasikoko eskolara. 16 urtegarz, ordea, dantza arabiarra egitea erabaki zuen. Ondoren, argazkilaritza ere ikasteko denbora atera zuen, baina gure artera heldu zenetik ez du horregaz lotutako lanik aurkitu eta ekialdeko dantzak irakasten ditu Sopelako Lizarre kalean dagoen eskola txikian. “Buenos Airesen dantza arabiarrean hasi nintzen, besteak beste, *tendoi bi apurtu eta ezin nuelako ballet klasikoa egiten jarnaitu. Halere, beste arrazoi bat ere egon zen dantza mota hau aukatatzeko, izan ere, nire amama Libanokoa da*”, azaldu du Nöelek.

Baina, zer da zehazki dantza arabiarra? “Guk ekialdeko dantza esaten diogu. Milaka urte dauzkan dantza mota da, gaur egun erritmo garaikideakaz fusionatuta dagoena. Ez da zertan sabela erakusten daukazula dantzatu, ez dauka saldu diguten irudiagaz zerikusirik”.

Orain, gainera, ekialdeko dantza modan dagoela uste du dantzariak, “Ekialde Ertai-

nean gertatzen ari dena ikusten dugun une berean”. Hartara, adin guztietako ikasleak dauzka. “Umeak ez ezik, Shakiraren pausoak ikasi gura dituzten emakumeak ere etorri zaizkit. Izugarria da pertsonaia mediatikoei eduki dezaketen enaginal”, esan du harrituta argentinarrek.

«Aldaka mugitzea apur bat kostatzen zaie hasieran hemengo emakumeei»

Hain zuzen ere, edozein pertsonak praktika dezakeen dantza da arabiarra edo ekialdekoa. Oso teknika lasaia da eta, euskaldunak mugimendu horiek egitera ohituta ez gauden arren, ikas daitekeela ziurtatu du Nöelek. “Euskal dantza tradizionalan gorputzak oso zuzenak dira eta aldaka mugitzea apur bat kostatzen zaie hasieran. Horrez gain, hemengo emakumeak estilizatuagoak edo europarragoak dira emakume latinoakaz konparatuz gero, beraz, nire ikasleei gerrian zapiak eskegitzen dizkiet aldaka zabalagoak emateko”. m

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

01 SOPELNET S.L.

- Jokoak sarean
- Txapelketak
- Internet
- Txat
- E-mail
- Lanak

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax:94

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

ZUBEROAKO MASKARADA MARTXOAREN 4AN

Simon Otxandategi dantza taldeak ohiko kalejira eskainiko du martxoaren 4an Berangoko kaleetan zehar. Goizeko 11:00etan hasiko dira eta Lantzarte, Angxane eta Karabigane auzoetatik ibili osten, Sabino Arana kalean bukatuko dute. Ondoren, txikian taldeak, bere errepertorioetik aukeratutako dantzak eskainiko ditu pilotalekuan. 50 lagunetik gora osatzen dute Berangoko dantza taldea. 1943an sortu zen eta Euskal Herriko folklorea aitzindarietako bat da.

EUSKARAZKO EREDUEN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINA

1+1=bi leloa ardatz hartuta, euskarazko eredueta matrikulatzeko sentiberatze-kanpaina abian ipini dute Berangoko Udalak eta Bizkaiko beste 42 udalerrik. Euskarazko eredueta matrikulatzeak dakartzen onurak azalduko zaizkie 2-3 urteko haurrak dituzten gurasoei eta, batez ere, etorkinen familiei. Liburuxka bat banatuko zaie; honetan euskal hezkuntza sistemari buruzko informazioa, eta hainbat aholku eta gomendio jasotzen dira. Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu du kanpaina.

EMAKUMEENTZAKO ASTEA BERANGOETAN

Martxoaren 5etik 10era, emakumeentzako astea antolatu du Udalak Berangoetako kultur etxean: hasteko, Ana Alcaidek, "Osasuna eraikitzen sendabelarren bitartez" tailerra eskainiko du 5ean; hurrengo egunean, Uribe Kostako Mankomunitateak antolatutako hitzaldia; 7an, emakumeek bizi duten egoerari buruzko film laburren emanaldia; 8an, luntxa egongo da eta honen ostean Oihulari Klown taldearen "Molestias Clownicas" antzezlanaren emanaldia; 9an, kontzertua eta bazkaria antolatu dute eskoletan; eta azkenik, 10ean, asteari amaiera emateko, "Los memorables" antzezlanaz gozatu ahal izango da.

Berangotik Guatemalara

Gazteek bultzatutako kooperazio proiektua



Proiektuan parte hartzen ari diren gazteak

"Gazteak dina proiektu honetako protagonista bakarrak, eurek aukeratu dituzte ekintzak eta finkatu dituzte helburuak" esan digu Leticia Arroyuelok, Berangotik Guatemalara proiektuaren arduradunak. Santa Anako kultur etxean beharrezkoa duten laguntza daukate kooperazio egitasmo honetan parte hartzen ari diren 10 gazte berangoztarrek. Guatemalako emakume indigenekin lan egitea erabaki zuten pasa den urte amaieran, eta, orduetik hona, buru belarri ibili dira horretan.


PTM, Mundu bat gobernuz kanpoko erakundeko lagunek formazio eta sentsibilizazio eskolak ematen dizkiete gazteei ostegu-

nero. Honez gain, tailer ezerdinetan ekoiztutako materialarekin (fimoa, apaingarriak, teillak...), merkatu solidarioa antolatuko dute maiatzaren 5ean eskola publikoan. Baina, ez da hau egiten duten gauza bakarra, izan ere, herrian ospatu diren hainbat jaialditan parte hartu dute dagoeneko.

Dena ondo baldin badoa, Hego Amerikara bidaiatzeko aukera izango dute gazte berangoztarrek. Bertan bizitakoak zein orain arte egindakoak, bideo batean bilduko dituzte, herritarrek proiektuaren nondik-norakoak ezagutu ditzaten: "Oso garrantzitsua da berangoztarren parte hartzea, guztion laguntzarekin gauzak hobeto egingo ditugu eta". m

Juanan Beitia > Portalena Pilota Taldeko lehendakaria

"Eskuz hasi, palaz jarraitu eta erraketaz amaitzen dute umeek"



7 eta 13 urte bitarteko zortzi bat ume osatzen dute taldea

2000. urtea baino lehen, umeak askotan ibiltzen ziren Gorlizko frontoian pelotaz jolasean eta pintxo zein ur eske Portalena tabernara joaten ziren. Denbora aurrera joan ahala, zortzi urtekoentzat txapelketak antolatzen hasi ziren jokalariren gurasoak. Horrela sortu zen Portalena Pilota Taldea elkarte. 2003an, Juanan Beitia taldeko presidente izendatu zuten. "Ohorezko presidentea ere badago: Claudio, Portalena tabernaren jabea", zehaztu du Juananek.

Gaur egun, 7 eta 13 urte bitarteko zortzi bat ume osatzen dute taldea. "Orain ez asko, 16 bat pertsona osatutako taldea genuen, baina batzuk nekatu eta joan egin dira. Kirol honek batzuetan prestaketa eskatzen du eta ez dugu ahaztu behar oso gaztetxoak direla". Halere, Bizkaian pelota osasuna berreskuratuz doala azpimarratu du presidenteak, paleta batez ere. "Eskupelota modan dagoen arren, oso gogorra da eta hemengo umeek nahiago dute palaz

jardutea. Hain zuzen ere, askotan eskuz hasi, palaz jarraitu eta erraketaz amaitzen dute frontenisean...".

Etorkizunari begira baikorra da Juanan, "batez ere Bilbon itzelezko frontoia egingo dutela dakidanetik, horrek kirolari izugarritzko bultzada emango dio eta". Gorlizko

«Gorlizen frontoi berria gura dugu»

egoera, ordea, guztiz ezberdina dela nabarmendu du pelotazaleak, jakinarazi duenez, herriko pelotalekua ez ei delako aproposa jolasteko. "Teilatua dauka, baina baita zutabetzar bat ere lauaren parean", azaldu du eta Udalak frontoi berria egiteko borrokan dabilzala gehitu. "Enbilera ezberdinak edukiko dituen frontoi berria gura dugu, ez kirolerako bakarrik. Horrela, kontzertuak, ikuskizunak, elkarteentzako batzarrik eta abar egiteko ere balioko duen azpiegitura lortu gura genuke". m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

cianoplan Reprografía
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



BERDEGUNE BERRIA GORLIZKO KINPULENEN

Gorlizko Udalak lehiaketa publikora atera du Herri Ikastetxearen ondoan egingo den berdegune berrirako obren proiektua. Lorategiak zeharkatzen dituzten oinezkoentzako pasealekuak egin eta hauek ezintasun fisikoak dituzten pertsonentzat egokitu dituzte. Dagoeneko eraikita dauden 70 etxebizitzetara, beste 20 gehituko zaizkie. 622.000 euro eta sei hilabete behar izango dira obrak amaitu ahal izateko.

AURREKONTU ALTUAGOAK PLENTZIAN 2007RAKO

Plentziako Udalak, 2007rako aurrekontuak onartu ditu EAJ eta EAko zinegotzien sostenguekin. 7.324.962 euro erabiliko dira batez beste, pasa den urtean baino %20 gehiago. Aurreikusita dauden proiektuen artean, Azurtegi ondoinon egingo den aparkalekua eta Plentzia Tebistaren berpiztea izango dira indartsuenak. Horrez gain, haurrentzako ikasgela berriak eta egun-zentro bat egitea ere aurreikusita dago.

GORLIZKO GAZTE BULEGOAK 500 BISITA JASO DITU BOST HILABETEAN

Arrakasta handia izan du ikasturte honen hasieran Krutzeta kalean irekitako Gazte Bulegoak. Emakumeak izan dira zerbitzu hau gehien erabili dutenak. Erabiltzaileak 16 eta 30 urte bitartekoak izan dira batez beste. Turismo eta ikastaro eskaintzari buruzko informazioa izan da gehien eskatu dutena.

GORLIZ

Azpiegiturak nagusi 2007rako aurrekontuetan



Gorlizko udaletxea

Behin behinez onartu dituzte Gorlizko Udalan 2007rako aurrekontuak. 11.793.768 euro erabiliko dira batez beste eta gehiena herriko kaleak eta eraikinak zaharberritzeko erabiliko da. Hala ere, euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta berdintasun planak parte garrantzitsua ere eramango dute.

Eloisa Artatza kalea urbanizatzeko lanak izango dira apustuak bat. Herri gunetik hondartzaraino helduko den norabide baka-rrerako kalea bihurtu nahi dute azken hori. Horrez gain, udaletxearen eta eliza ondoko

plaza zaharberritu, kirol instalazioak handitu eta Kultur Etxearen egokitzapen lanek ere inbertsio garrantzitsua ekarriko dute. Euskararen erabilera sustapenerako, propaganda kanpaina eta herrian erroldatuta daudenentzako ikastaroak antolatuko dituzte.

Patxo Igartua alkatearen ustez, "aurrekontu errealistak dira, herriaren beharrezkoak dira eta. Posible zaizgun inbertsio guztiei aurre egiten ahaleginduko gara, gure baliabideak zeintzuk diren kontuan hartuz". m

Ots. 26 - Mar. 12

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

SOPELA

► **Izan elkartearen argazki erakusketa.** Erakustaretoa. Martxoaren 4ra arte.

GETXO

► **Olatz Azkueren margolan surrealista.** Erromoko erakustaretoa. Martxoaren 3ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.
► **Diego Tijeroren akrilikoak, olioak eta kollageak.** Algortako erakustaretoa. Martxoaren 3ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.
► **Gonzalo Montejoren akuarelak.** Algortako erakustaretoa. Martxoaren 5etik 17ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

LEIOA

► **The Beatles.** Erakusketa aretoa. Otsailaren 28ra arte. 10:00-20:00.
► **Colectivo Punto Rojo.** Erakusketa aretoa. Martxoaren 5etik 25era. 10:00-20:00.

PLENTZIA

► **Berta Lopezen margolanak.** Goñi Portal. Otsailaren 28ra arte.

BERANGO

► **Argazkiak: Itsasoaren inguruan.** Kultur Etxea. Otsailaren 29tik martxoaren 9ra arte.

ZINEMA

GETXO

► **Obaba.** Getxo Antzokia. Otsailak 28, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
► **Gente de Roma.** Azpitiuludun jatorrizko bertsoa. Getxo Antzokia. Martxoak 2, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.
► **Harri magikoaren bila.**



► Erakusketa

Emakumeen elkartegintza Bizkaian

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, martxoaren 5etik 16ra arte, *Emakumeen elkartegintza Bizkaian, hurbilketa historikoa* erakusketa ikusteko aukera edukiko dugu Erromoko erakustaretoan. Bertan, emakumeen mugimenduari buruzko historia, sufragimotik gaur egun arte, islatzen duten kartelak, idazkiak eta irudiak egongo dira ikusgai. Hainbat izango dira erakusketak ikutuko dituen gaiak: politika, kultura, erlijioa, gizartea... Erakustaretoa astegunetan 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 egongo da irekita; zapatuetan, beriz, 11:00-13:00. Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna dela ikusita, gure emakumez zerbaitek gehiago jakiteko aukera ezin hobea daukagu. Galduko duzu?

• **Non:** Erromoko erakustaretoa • **Noiz:** martxoaren 5etik 16ra arte

Umeentzako zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Martxoak 4, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.
► **El laberinto del fauno.** Getxo Antzokia. Martxoak 7, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
► **Grbavica.** Azpitiuludun jatorrizko bertsoa. Getxo Antzokia. Martxoak 9, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.
► **El príncipe de los ladrones.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 11, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

LEIOA

► **Vete y vive.** Auditorium. Otsailak 27, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **Hana Bi.** Auditorium. Martxoak 6, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **Cantando bajo las balas.** Adolfo Fernandez. Getxo Antzokia.

Martxoak 3, zapatua. 20:00. Sarrera: 10 euro.
► **Un Picasso.** Jose Sacristan eta Ana Labordeta. Getxo Antzokia. Martxoak 10, zapatua. 20:00. Sarrera: 12/15 euro.

BARRIKA

► **Meva Mare.** Barrikako Kultur Zentrua. Martxoak 8, eguena. 18:00.

ERANDIO

► **Teatro con tetas y algo más.** Ikastrola Teatro. Josu Murueta kultur etxea. Martxoak 10, zapatua. 19:30.

BESTEAK

GETXO

► **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxea. Martxoak 9, barikua. 19:00. Sarrera dohainik.

LEIOA

► **Dantza: Dueto.** Moare. Auditorium. Martxoak 1, eguena. 20:00. Sarrera: 6 euro.
► **Dantza: Look.** Ertza. Auditorium. Martxoak 8, eguena. 20:00. Sarrera: 6 euro.
► **Kontzertua: Camerata Euridice.** Auditorium. Martxoak 11, domeka. 20:00. Sarrera: 6 euro.

BERANGO

► **Aratusteak: Zuberoako Maskarada eta Zantantzarrak.** Lantzarte auzoa. Martxoak 4, domeka. 11:15.

BARRIKA

► **Ginkana ez sexista eta ipuin-kontalaria.** Barrikako Kultur Zentrua. Martxoak 10, zapatua. 11:30.

ERANDIO

► **Bilboko katedraleko kapera musika.** Josu Murueta kultur etxea. Martxoak 3, zapatua. 19:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
25 ANIVERSARIO
URTEURRINA
1981 - 2006



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Aratusteen mozorroa

Aratusteak urtean zehar lotsa gaitzakeen geure benetako gu azalarazteko egunak. Inauteriak, ez garen hori irudikatzen aukera. Sorginkeriaz beteriko data. Aldarrikatzeko, salatzen, gozatzeko, askatzeko... jai paganoak. Zu zeu ala beste hori izateko abagunea. Bakarka zein taldeka festa egiteko parada. Gaua eta eguna, ilargia eta eguzkia bezain desberdinak, baina aldi berean, hain hurbil dauden aldaerak agertzeko urteroko zita. Kontua, azken finean, gozatzen datza. Zuk gozatu al zenituen? Guk... bai horixe!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Sardinere

Lutzana 1935

Ziurrenik, Bilbora sardinak saltzera Ibaizabalen ertzetik oinez joaten ziren azkenengotariko sardineraren aurrean gaude oraingoan. Pentsa gaur egun metroz oso eroso egiten dugun ibilbidea antzinean oinez egiten zutela andre horiek. Berdin zen euria, hotza ala beroa; otzara buruan jarri eta pauso arinaz abiatzen ziren hiriburura, hiriko jauntxoei euren arrain freskoak saltzera.

[berbetan]

Gurutzetako ospitalera joan gara oraingoan, baina lasai, zorionez ez gagoz gaixorik. Edo hala uste dugu behintzat. Euskal Herriko gaixoetxerik handienara eroan gaituen arrazoia bertako zuzendari medikuagaz egindako hitzordua da. Julen Ballestero dauka izena, Erandiokoa da eta Getxon bizi da gaur egun. Orain dela urte eta erdi inguru kargua hartu zuenetik, bera-ri dagokio gaixoenganako arreta medikua antolatzeke ardura, eta ez da ardura makala. Are gutxiago, Gurutzetak Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo ospitalea izan gura duela kontuan hartuta. Bada arlo askotan. Uribe Kostakook lasaiago gagoz Gurutzeta bertatik bertara daukagula jakinda. Nonbait, han daukate gordeta gure gaixotasun guztiak konponduko dituen edabe magikoa. Aro modernoko druidak dira osagileak, edo beharbada, jainko txiki bihurtzen hasi dira honezkero. Lehen, erlijioak egiten gintuen hilezkor. Gaur, medikuntza modernoaren mirarrietan oinarritu dugu funtsik gabeko itxaropen hori. Ustezko Olinpo horretan dihardu Julen Ballestero, eta handik gogorarazi digu gaitz guztiek ez dutela sendabidea, guk itsu-itsu hala sinestu arren.

Julen Ballestero

Gurutzetako Ospitaleko olinpoan

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hara non oraintxe irakurri dudán, hor-
man eskegita daukazuen kartel batean,
lehenengo galderaren erantzuna. Galdera
hau da: Euskal Herriko ospitaleetan erre-
ferentea izan gura du Gurutzetak? Kartela
ikusita, argi dago baietz.

—Bai, hori da gure ikuskera, eta ospitalean
egindako hausnarketa prozesu baten ondo-
ria da. Guk, etorkizunean, EAEko errefe-
rentziatzko ospitalea izan gura dugu; ez
erreferentziatzko ospitale bat, erreferentziat-
zko ospitalea baizik. Eta EAEtik harago ere
bai. Neurri batean bagara, eta gainera [kar-
tela irakurtzen hasi da], “erkidegoaren ara-
zoakaz konprometitura eta gure langileen
gaitasunak garatuz”. Hau da, lehenengoak
izan gura dugu gaixoenganako laguntza-

prozuetan; gaur egun bagara, transplante
alorrean eta beste batzuetan, baina gehiago
lortu gura dugu. Eta hori guztia, gure ingu-
ruko herritarrekiko konprimisoagaz eta
gure beharginen baloreak garatuz. Hori
lortuz gero, ondo gabiltza.

“EAEko erreferentziatzko ospitalea izan gura du Gurutzetak”

—Baina, zer onura dakar besteen aldean
erreferentzia den ospitale bat egoteak? Ale-
gia, ona da ospitaleak elkarregaz lehiatzea?
Egon behar da lehia hori?

—Egon badago, baina ezin daiteke arlo
guztietan egon. Bizitzaren beste esparru bat-
zuetan bezala, denok ezin dugu denetik

egin. Eta gaur, medikuntzan, gero eta espe-
zializazio handiagoa dago. Prozedura bat-
zuek ospitale guztietan egin badaitezke ere,
prozedura komunak esan dezagun, beste
batzuek, oso bereziak, gutxi batzuetan baino
ezin daitezke egin. Berbarako, bihotzeko

kirurgia. Ez dago gaixo kopuru nahikoa
ospitale guztiek halakorik eskain dezaten.
Beraz, bizpahirutan egon beharko da, ge-
hiagorik ez. Eta gu hortxe gagoz. Umeen
bihotzeko kirurgia, berriz, guk baino ez
daukagu. Beste adibide bat: ugalketa la-
gundua, gehien egiten da zeregin horretan

Julen Ballestero erandioztarra Gurutzetako zuzendari medikua da >



denbora gehien daroan lekuan, hau da, hementxe. Berdin ornomuineko kalteen tratamenduan, edo goi mailako oftalmologia-prozeduretan. Oso profesional onak eta trebatuak dauzkagu arlo horietan. Eskarmentua daukagun eremuetan, liderrak izaten segitu gura dugu, eta beste batzuetan are liderrago bihurtu. Holan segitu gura dugu, eta zeozer berria agertzen den bakoitzean, geu izan gizarteari eskaintzen dioten lehenengoak

—**Arlo batzuetan gaixo nahikorik ez dagoela esan duzu. Eta osagile nahikorik bai?**
—Beharbada ez arlo guztietarako. “Lehor-te” halakoa dago osagile eta espezialisten heziketari dagokionez. Eta ulertzekoa denez, gizarteak eskatu egiten digu ondo bidera dezagun langileen espezializazioa. Ez da bihotzeko zirujau askorik behar, gero ezin izango badute euren lana bete. Gizartearen eskaerari egokitu beharko zaio bihotzeko zirujau beharra. Gaixotasun asko oso jende gutxik jasaten ditu: lau, bost lagun, 100.000 biztanleko. Horretarako ez dira hamar edo hamabi unitate sortu behar, nahikoa da bakarra. Horregatik dago, esaterako, erredu-ra unitate bakarra autonomia erkidego osoan. Edo gibekeko transplante unitate bakarra. Eta geuk dauzkagu, profesionalik onenak dauzkagulako.

—**Ospitale hau Ibaizabalen ertz bietaz arduratzen da...**

—Eta haragokoaz.
—**Ez da jende larregi?**

—380.000 biztanle dira gutxi gorabehera. Bilbok daukan kopuru bera, eta han Barsurto dago. Askok diren? Gauza batzuetarako bai, baina guk badaukagu guztiei arreta emateko gaitasuna. Batzuetan jende asko etortzen da, orain bezala, esaterako, gripe epidemia dagoelako, baina oro har, hau da, alde zuzenetik planifikatu ahal dugun eremuetan, 380.000 laguneko eskualde bateri arreta emateko moduan gagoz. Itxaron-zerrenda kontrolatuak dauzkagu, iazkoakaz konparatuta gutxituz doazenak bai denborari bai gaixo kopuruari dagokionez. Azken batean, 380.000 asko ala gutxi den ospitalearen tamainuaren arabera izango da,

baliabideen arabera, eta guk orain badugu baliabide nahikoa. Horrek ez du esan gura gehiago eskatzen ez dugunik, edonork bezala.

—**Esaiozu hori larrialdietara gaueko ha maiketetan joan den eta goizeko hirurretan oraindik han dagoenari...**

—Ni larrialdietako osagilea naiz, hori da nire jatorrizko lanpostua, eta badakit zer den. Larrialdi-zerbitzua hiritarreganako arretaren zati garrantzitsuenetakoa da. Je-

“Larrialdietara datozenen %12 baino ez da ospitaleratuta gelditzen”

neralean, bera da hiritarrak ospitalagaz harrerama daukan lehenengo lekua, eta latzena ere bai. Nire ustez, oso larrialdi-zerbitzu ona daukagu oro har; kontuan hartu behar da arloka banatuta daukagula hori ere: pediatria, ginekologia... Eta ahaleginak egin ditugu arlo horiek sendotzeko. Orain dela urte bat baino zertxobait gehiago sendotu ditugu modu iraunkorrean, eta lantzean behin are gehiago sendotzen ditugu, eskaera handitzen den aldietan. Larrialdietako medikuek badakite gu beti gagozala euren lanari begira, eurretaz arduratzen garela. Gaur eurakaz berba egin dut, atzo bertara joan nintzen, ea zelan egozan ikustera, asteburuetan ere deitzen diet euren berri edukitzeko, eta etxeko ordenagailuan ere larrialdien gaineko informazioa daukat, minutu-

“Mediku askok laster hartuko dute erretiroa, eta ez dago ordezkorik”

rik minutu. Ospitaleko zerbitzurik garrantzitsuenetakoa da, hortik sartzen da eta gaixoen erdia.

—**Hala ere, larrialdietan ez dira, ba, gainezka egoten?**

—Larrialdietako osagileek, batzuetan, gainezka dagozala senti dezakete. Baina horren arrazoi nagusia ez da daukaten lana -larrialdietako lana-, bertaratzen den jende kopuru handia baizik. Datu bat emango dizuet:

larrialdietara etortzen direnen %12 baino ez da ospitaleratuta gelditzen; %88, beraz, etxera joaten da. Horietako batzuei azterketak egin behar zaizkie, tratamenduak eman... eta guztiz bidezkoa da hona etorri izana, baina erdia baino gehiago kontsulta xume bat jasota joaten dira etxera.

—**Alegia... daukatena ez da hain larria.**

—Ez. EAGera (Etengabeko Arretako Gunea) joan zitezkeen, Areetan badago bat esaterako, eta kasu askotan biharamunera arte

itxaron zezaketen; izan ere, askotan, etortzeko arrazoia zera da: zapatua dela eta asko falta dela astelehenerako. Hala ere, nik ez dut hiritarra epaitu edo kritikatu gura umeak sukarra daukanean larritzeagatik.

—**Ez daukagu medikueganako, edo hobeto esanda, gaur egungo medikuntzaren konfiantza handiegia? Herritar gehienek inoiz hutsik egiten ez duzuela pentsatzea, ez da zuentzat zama astunegia?**

—Igarri egin dugu, hori egia da, herritarrek gero eta gaitasun txikiagoa daukatela albiste txarrak onartzeko, dena delakoagatik: medikuntzaren aurrerapenagatik, telebista eta pelikulengatik... Denek uste dute ia guztiak daukala konponbidea. Ez da egia. Jendea hil egiten da, eta hiltzen segituko du. Besterik da gaixo askoren bizitza luzatu izana, eta

batez ere kalitadedun bizitza. Baina azkenean, jazo behar dena jazo egingo da. Guretzat hori ez da zama, herritarren eskaria baizik, eta jakin egin behar dugu eskari horri erantzuten, eta bideratzen, zera esanez: “Honek, noizbait, amaiera bat eduki behar du”.

—**Lehen aipatutako mediku falta dela eta... Euskal Herrian ez da, oraindik, Europako beste herrialdeetan bezain arazo larria, baina hasi zarete igartzen?**

—Bai. Ni, zuzendari mediku izan aurretik, zerbitzu medikuetako zuzendariordea eta kirurgia-zerbitzuetako zuzendariordea izan naiz. Zerbitzu medikuetan hasiak ginen arazo batzuk edukitzen, baina tira. Kirurgia-zerbitzuetan ohartu nintzen errealitateaz: benetan hasita gengoan osagile defizita igartzen. Zirujauena lehenengo, kasu batzuetan oso espezialistak direlako, baina hasi gara beste arlo batzuetan ere arazo bera jasaten: anestesistak, erradiologoak, urologoak, kardiologoak, arnas-aparatukoak, barne-medikuntzakoak... Orain adineko mediku asko daukagu, 60-62 urte ingurukoak. Horiek laster hartuko dute erretiroa, eta ez dago ordezkorik. Urte zailak datozkigu alde horretatik.

—**Dagoeneko hasiko zineten konponbide bila noski...**

—Lanean gabilta, bai.

—**Londresen bezala, esaterako? Han, osagileen erdia pakistandarrak ei dira...**

—Aspaldidanik da hala, eta Europako leku batzuetan hemengoak dira, bizkaitarrak. Ohikoa da hori. Guk zenbait gauza egin dugu. Unibertsitateko heziketan ezin dugu eragin, baina bai unibertsitate osteoan. Eta unibertsitatean badakite gure eskaria -ospitale guztion- handitu dela, osagile gehiago behar dugula. Eta guk geuk espezialista lanpostu gehiago eskaini dugu. Horren emaitza urte batzuk barru ikusiko da. Medikuek baten heziketak hamar-hamairu urte irauten du (sei unibertsitatean eta lauzpabost ondoren), beraz epe hori igarotakoan jakingo dugu zer gertatzen den.

—**BAMEko lau urteei dagokienez, lan baldintzak hobetzea arazoa leuntzeko modu bat izan liteke beharbada...**

—Prestakuntza egiten dabilen mediku baten lan-baldintzak nahiko onak dira, diru

aldetik eta lan-ordu aldetik. Praktiketako kontratua dela kontuan izanda, jakina, horixe delako azken batean. Arazoa ez dago hor, oinarrian baizik: gero eta jende gutxiagok izan gura du mediku.

—**Esaten da horren arrazoietakoa bat medikuek gizartean prestigioa galdu izana dela.**

—Lehen, seguruenik, entzute handiagoa zeukaten gutxiago zirelako. Zerbaiten ale gutxi dagoenean, balio handiagoa daukatela begitantzen zaigu. Aldiz, asko egonda -eta gaur egun arreta medikua unibertsalizatu egin da-, ematen du balio hori txikiagoa dela. Baina nire iritziz balio itzela dauka oraindik. Herritarrek gure esku ipintzen dituzte bai euren bizitza, bai gehien maite dituzten pertsonena. Ez dut uste hori baino balio handiagoko ezer dagoenik munduan. m

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonia.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



O FATALISTA



TRANBIAN



ERRAILAK

Portugalgo hiriburuan

Gatxa da Portugalgo hiriburua ezagutu eta berarekin maitemindu ez den lagunik topatzea; hiriari darion malenkolia, lasaitasuna, *saudadea*, gainbehera etorritako inperioren arrastoak... Gogo-aldarte berezia eragiten dio Lisboak bisitariari. Orain dela urte bi hiriaren magiak erakarrita, kamera aldean hartu eta hara abiatu zen Asier Bastida prentsa argazkilaria leioaztarra. Bere eguneroko jardunaren itolarriaz ihesean, bere lana benetan gozatzeko, astebetean patxadaz Lisboako tranbiari buruzko erreportajea egitea zen bere asmoa, ez besterik. Tranbia eta tranbiatik Asierrek ikusitakoak ekarri ditugu orrialdeotara.

Argazkiak: **Asier Bastida**



HALPRA TRANBIAN



TXINATARRA



AULKA



DAMA



REPÚBLICA



AGUREA



MANIKIA



ATSOA

zineeskola

Oskar Fernandez

Euskal zinema (II)
Jorge Oteiza

A cteon pertsonaia mitologiko greziarrari buruzko proiektua, beste hainbat bezalaxe, ez zen azkenean gauzatu: Oteizak gidoia idatzita zeukan eta 1963an ekoizlea ere bazeukan, baina errodajea hasi eta ordu gutxira bertan behera gelditu zen. Oteiza oso pertsona kementsu eta baikorra zenez, gero Gabriel Celayak idatzitako *Lo uno y lo otro* zinemara eramaten saiatu zen. 1976an Veneziaiko Bienalerako eskultura mugikorra bururatu eta asmatu zuen. Eskultura hau zabalduz gero film baten proiektioari aukera emango lioke. Proiektu honek ere porrot egin zuen. Oteizak lan egiteko zeukan ahalmena nabarmena eta izugarria zen; hogeita hamar gune edo kultura proiektu baino gehiago garatu zituen, guztietan zinematik garrantzi handia zeukan. 1964an Elorrio herrirako oso proiektu aurrerakoia asmatu eta diseinatu zuen: Haur Unibertsitate Pilotua. Heziketa gune honetan zinematik presentzia oso nabarmena edukiko zuen; helburuen artean bata oinarritzkoa zen. Entzun dezagun honetaz Oteizak esaten zuena: “*Haurraren sentsibilitate estetiko gaur egungo ikusentzunezko irudietara esnatu beharko genuke*”. Baina, zorritzarrez proiektuak huts egin zuen. 1965ean Gipuzkoako Unibertsitateari buruzko artikulua idatzi zuen: Unibertsitate eta zinema. Ikus dezagun honi buruzko pasarte bat: “*Gure Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren historiak, ez du balio izan Donostia lurraldeko zinematekatz hornitzeko, ez 16 milimetrotako proiektorea zineklub bati emateko ere, ezta filmatzeko lantegi bat sortzeko ere...*”.⁴

Beste bat dagoeneko prest!

Martxoan estreinatuko da **Eutsi!** film euskalduna, **Gorritiberearen** lehen lan luzea

Urte larregi eman ditu zinemasale euskaldunak eta euskal zinemagintzak fikziozko lan bat pantaila handian ikusi barik. Ematen du ekoizleek heldu diotela azkenean ortuari, urteen utzikieriaz sasituta soroa garbitu eta, laiak urrututako lurak erne ditu ereindako haziak; *Aupa Etxebeste!*, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel...* eta martxoaren 9an loratuko da azkena zinema aretoetan. *Eutsi!* Alberto J. Gorritibereak (Zumaia, 1970) zuzendu duen lehenengo film luzea da, “*komediaz jantzitako drama soziala*”. Gidoia idazteko Unai Iturriagaren laguntza izan du Gorritibereak, Javi Agirre izan da argazki zuzendaria, audioa Pablo Buenoren ardurara izan da, musika Mikel Mendizabalek ipini dio eta Baleuko eta Irusoin etxeek

«Asier Hormaza
getxoztarra, Anjel Alkain,
Nagore Aranburu...»

ekoiztitako lana da. Aktoreen aurpegiak ezagun egingo zaizkio ikusleari: Asier Hormaza getxoztarra, Anjel Alkain, Nagore Aranburu, Oihana Maritorea, Kandido Uranga...

Pasa den urteko ekainean hasi ziren filmatzen, batez ere Donostian eta Oar-



Pelikularen kartela

soaldean: Lezo, Pasai Antxo, Jaizkibel, Esa (Nafarroa)...

Kepa eta Martin, 30 urtetik gora duten lagun bi txirindularitza zaleak dira eta lanegoera larria bizi dute, urte bi daroate greban. Horri erantzuteko ekimen berezia prestatuko dute: euren aldarrikapena Frantziako tourrera eroatea. Enpresako autoa lapurtu, sindikatua hankaz gora ipini, eta jakin barik aldean duten dokumentu batek harilkatzen dute *Eutsi!*.

Orain filma ikustera zinemaraino hurbiltzeko demari eustea eta erantzutea zinemasale euskaldunen esku dago. ^m

Ez galdu > “Grbavica”

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: Martxoaren 9a, barikua • Ordua: 22:00 • Zine Paradiso



Hauxe da Sarajevon jaiotako Jasmila Zbanic-ek, zuzendu duen lehenengo film luzea. Baina Jasmila antzerki zuzendaria ere bada; zinemagintzan murgildu baino lehen txotxongiloekin lan egiten zuen Vermont-eko Bread and Puppet Antzokian. Orain dela hamar bat urte zinemagintzan hasi zen. Arrakasta handia eduki duen eta mundu osoko zinemaldietan ikusi ahal izan diren dokumentalak egin izan ditu.

Pelikula honen protagonista den Esmá, bere alaba, ikastetxeak antolatzen duen bidaiara joan ahal izateko borrokatuko da. Bidaiaren prezioaren erdia doan atera daiteke doan baina horretarako bere senarra gudan hil zen ziurtagiria beharrezkoa da. Hala ere, Esmak ez du agiri hori eskatzeko inolako asmorik. Nahiago izango du beste bide batzuk urratu hori egitea baino.

Fonoteka Getxoko liburutegietan

Orain dela urte batzuetatik hona herriko liburutegiek entzunezko bildumak handitzen dihardute, eskuratzeko gaitzak litezkeen aleak batzen



Astero astero zortzi bat disko berri sartzen dira fonotekan

Orain dela urte bi inguru hasi ziren Villamonteko kultur etxean herritarrei fonoteka zerbitzua eskaintzen. Ostera, Areetako eta San Nikolaseko liburutegietan hori baino lehen bazebiltzan fonotekako jarduna lantzen. Liburutegiek liburuakaz duten helburu eta egiteko bera dauka fonoteka batek baina entzunezko funtsari egokituta. Halere, liburutegien lanaren barruko beste eskaintza bat legez hartzen da. Liburutegien jarduera beste esparru batzuetara ere zabalduta da urteek aurrera egin ahala, eta horren adierazgarri

da, besteak beste, fonoteka.

“*Kultur Etxeak animatzaileek eta hainbat CD erabiltzen zituzten herriko jaialdiak antolatzeke, baina CD horiei beste erabilenarik ez zitzaizkien ematen, orduan otu zitzaizgun balia-bide horiek guztiak Villamonten ipintzea erabiltzaileen eskura; horrela bilduma osatuz joan gara apurka*”, azaldu du Anabel Regalado liburutegietan.

Fonotekaren funtsa nagusia gaur egun Villamonteko kultur etxean dago, baina Areeta eta San Nikolaseko liburutegietan ere

banatuta dago zati bat. San Nikolasekoan “*Bertoko bilduma*” deritzen ataleko diskoak daude: “*CD, kasetak, maketak... herriko musika taldeek edota herrian antolatzen diren jaialdietan ekoizten direnak biltzen ditugu hor*”, jakinarazi du Regaladok. Areetan, osterara, musika klasikoagaz lotutako materiala

«Pasa den urte amaiera
aldera 1.500 disko funtsa
zegoen eskuragarri
fonotekan»

dago gehienbat, “*gaur egun beste gauza batzuk ere badira, noski*”, dio liburutegietan.


Esan barik doa, fonotekan ez dagoela musika komertzial legez ezagutzen dena, “*agian, lortzeko gaitz diren diskoak ditugu; gehienbat, jazz, blues, folk edo munduko musikagaz zein etnikoagaz lotutako CDak daude, maila altuko taldeenak*”, argitu du Regaladok. Pasa den urte amaierako datuen arabera denetara 1.500 alez osatzen da Getxoko fonoteka, baina Regaladoren esanetan “*astero-astero 8 bat disko berri sartzen dira*”.

Mailegatzeko zerbitzuak liburuaren modura funtzionatzen du, eta berbarako, iaz 1.132 disko utzi zituzten maileguan. Udalerriko beste liburutegi batean dauden diskoak ere hurbilenera egoitzara ekartzeko zerbitzua eskaintzen du. Bestealde, fonotekaren funtsa sarearen bidez ere kontsulta daiteke:

www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua


diskoak

Long term physical...
Jay Jay Johanson
EMI




Elegante, surrealista, dramatiko eta indartsutzat jo izan dute kritikoez musikari suediararen azkeneko lana. Oraingoan, 80ko kutsua zeukan elektronikatik aldendu eta lehenbiziko diskoetako trip hop malenkoniatsua landu du berriz ere Johansonek. *Rocks in pockets, Tell me when the party's over eta As good as it gets* dira diskoak kanturik aipagarrienak.

Etorkizuna lehertu
Stupenda Jones
GOR



Olatzikoak dira eta euskaraz zein gaztelaniaz abesten dute. 2004an atera zuten euren lehenbiziko diskoa Brigada Criminal taldeagaz batera, baina oraingoan bakarka datoz. Guztira 11 kantu prestatu dituzte Gluecifer, Hellacopters edo Turbonegro taldeen kaleko rockaren estiloari jarraituz. Aurreko diskoak doinu bera jorratzen dute, baina abesti guztiak landuagoak dira.

Skalariak 1997-2002
Skalariak
GOR



Skaren munduan oso talde garrantzitsua dugu Skalariak; izan ere, jarraitzaile nahikoa dauka, besteak beste, Txilen, Grezian, Alemanian eta Italian. Hori dela eta, talderen abestirik esanguratsuenak bilduko dituen diskoa kaleratzea erabaki du Gor-ek. Hasierako hiru lanetako kantuek bildu dira, kontzertu ezberdinak zein taldekideei egindako elkarrizketak erakutsiko dituen Street's ska dvd-a lagun duela.

etorri
eta
ikusii!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Metro Plaza
martxoak 12

Areetako Anbulatorioa
martxoak 13

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Literatura eta gatazka, gurean

Hamar hitzaldi batzen ditu
Maldetan sagarrak... liburuak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako *Euskal gatazka euskal literaturan* ikastaroan (Miarriz, 2005) irakurritako hitzaldi gehienak batu dituzte liburu batean Ibon Egañak eta Edu Zelaietak. Guztira 10 dira *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* lanak biltzen dituen berbaldiak, ikastaroko bederatziei Jokin Muñozen "Bizialo. Ohe azpian" hitzaldia batu diote-eta. Euskal gatazka gaia berez labankorra bada ere, eta hizlari bakoitzak bere aldetik heldu bazion ere, hitzaldiak hurbiltzeko asmoz 3 ataletan banatzen da lana: "Idazleak bere lanetan" (Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Aingeru Epaltza, Hasiar Etxeberria, Mikel Hernandez Abaitua eta Jokin Muñoz);

«Edu Zelaieta eta Ibon Egaña dira liburuaren koordinatzaileak»

"Zenbait azterketa" (Jon Benito, Aritz Gorrotxategi eta Markos Zapiain); eta "Irakurketa lantegia" azken atalean sartu dute. Aitzpea Azkorbebeitiak prestatu zuen "Euskal gatazka Joseba Sarrionandiaren testuen argitan" lana.

Canok erabilitako berbetatik eratorritzen da liburuaren izenburua; izan ere, Lasartearak Joseph Broskiren ideia batean oina-



Itxaro Borda

riturik hau dio: "Esaerak sagarra zuhaitzetik gertu erortzen dela badio ere, ez da hori beti egia. Batzuetan sagarrondotik urrun erortzen da sagarra. Batez ere, gurean askotan gertatzen den bezala, arbolak maldan daudenean". Metaforatik uler liteke jendeak berehalako erabateko erantzunak gura dituela, sagarrondopean bertan batu sagarrak, baina arbola aldapan landaturik dagoenean... Egañak eta Zelaietak esan legez, "ez dugu erantzun biribilik aurkituko", ostera, zalantza eta galderak dira nagusi. Hala, distantzia, engaiamendua, ideologia, tabua, unibertsaltsuna... dituzte berba hainbat be-lanaldi eta ideologiatako 10 hizlariak.

liburuak

Alziber (Etxeberria)

Tango urdina
Aitziber Etxeberria
Erein

Tratu txarren gaia lantzen du liburuak. Nobela aurrera joan ahala, biolentzia handituz doa, hala nola, emakumearen aldarriak. Tratu txarrak izen erdalduinak lotu ditu idazleak eta gaztelaniaz berba egiten dute. Halere, gainerako pertsonaiak euskaldunak dira eta ez dute horiek ekiditeko ezer egiten.

Euskara jendea
Xamar
Pamiela

Euskararen inguruan egon daitezkeen galderak modu errazean erantzuten ditu Xamarren azken liburuak. 600 bat marrazkiz lagunduta, gure hizkuntzari buruzko hainbat albiste, berri, datu eta adierazpen biltzen ditu, gure herriko historia era berritzaileen emateko.

[kirola]

Hirugarrenean agindupean

Jaime Fernandez getxoztarrak hartu zuen Galeako txapelketako **olaturik handiena**



Asier Muniain eta Jaime Fernandez txapelduna lehian

Hirugarren eginahalean, behingoz, itsasoak eskaini zien behar zutena: 4 metro altuera baino gehiagoko olatuak.

Lehenengo ekimena erakustaldi modura prestatu zuten EHSFk eta 36. antolatzaileek. Ondoren, txapelketa izaera eman zioten eta iazko urte amaieran aurkeztu zuten Punta Galeako Erronka Handia lehiaketa, edota ingelesez *Oxbow Punta Galea Big Challenge*. Hasiatik iragarri zuten txapelketarako eguna itsasoak aukeratuko zuela, horrenbestez, olatuen oniritziari itxoiten egon dira. Bi ahalegin egin dituzte aurretik, batean zein bestean ematen zuten baietz, itsasoa prest zegoela, zerbitzatu zizkiela seme-alaba aproposak; baina kale egin zuten eta indartsuak izanda ere, oinordeko txikiagotxo batzuk bidali zizkien. Ostera, hirugarrenean, bai, Ana Urrutiak aste osoan zehar iragartzen ibilitakoa bete egin zen otsailaren 11n, 4 metrotik gorako olatuak sortu ziren Galean eta Punta Galea Erronka Handia gauzatu zen.

Eta etxeko batek lortu zuten olaturik handiena mendean hartzea. Jaime Fernandezek ondo ezagutzen ditu Galea aldeko itsasoaren

seme-alaba indartsu, bortitz eta erraldoiak, eta ezagutza laguntza izan badaiteke ere, itsasoak ez du sekula oinordeko berdinek bidaltzen, eta bakoitza hankapean hartzea beti esperientzia berria da. Fernandezek 1.700 euroko saria jaso zuen handiengan agintzeagatik, Surfari Onenari saria (1.200 euro) Pablo Solarrentzat izan zen, Olatu Jaitsiera Kritikoenaren saria (900 euro) Pablo Garciak lortu zuen, wipe out hobe-

«77 bat olatu hartu ziren, horietako batzuk 5 metrotik gorakoak»

renari saria Iñigo Idigorasentzat (600 euro); bestalde, gainontzeko lehiakide bakoitzak 200 euro poltsikoratu zituen. Antolatzaileen esanetan 77 olatu hartu ziren, eta horietako batzuk 5 metrotik gorakoak izan ziren. Benetan ikuskitzen itzelagaz, ederragaz gozatu ahal izan zuten otsailaren 11n Galeako itsaslabarrera hurreratu zirenek, alabaina itsasoa ere gailendu zitzaizen zaldun beldurgaitzei; Iker Fuentes larri ibili zen uretatik irteteko, Iker Acerok taula galdu zuen, Jaime Azpirozek berea apurtu...m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacorfris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTE ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Aitor Gurtubay > arkitektoa

“Lurraren kudeaketa oso garrantzitsua da, ezin dugu daukagun lur apurra agortu”



Aitor, bere estudioak egindako Bilboko Deportivoaren fatxadaren aurrean. www.gazarquitectos.com

Aitor Gurtubay getxoztarrak ez du oso ondo gogoratzen zergatik erabaki zuen arkitektura ikastea. Artea eta teknika gogoko dituela dio eta arkitekturak esparru bi horiek uztartzen dituelako izango zela uste du. Dena dela, arrazoiak arrazoi, ikasketak burutu eta GAZ arkitektoak estudioa ireki zuen ikaskide batzukaz. Besteak beste, bereak dira Gorlizko ikastola, Asteasuko kiroldegia eta Club Deportivo fatxada.

—Zer da GAZ?

—2000. urtean, hiru ikaskide elkartu ginen enpresa bat sortzeko eta GAZ (Gurtubay, Atxurra eta Zelaieta) izena ipini genion. Bai hirigintza zein eraikuntza arloan proiektuak diseinatzea eta aurrera eramatea da gure asmoa. Enpresa sortu genuenean gu bakarrik geunden, baina orain arkitekto eta aparejadore gehiago dauzkagu gugaz beharrean. Arkitektura ona eta ederra egiteaz bizi gura dugu eta gutxinaka-gutxinaka lortzen ari gara.

—Gatxa da arkitekturaren munduan leku bat egitea?

—Batez ere proiektu eta enkargu ederrak lortzea. Proiektu txikiak egin daitezke, eta oso garrantzitsua da horrelakoak ere egitea, baina guztiok gura ditugunak ez dira askotan irtezen. Gainera, ez digute horiek egiteko deitzen eta gu atera behar gara bila. Nola lortzen ditugu, ba, proiektu bereziak? Batez ere lehiaketen bidez. Horrek gauza bitxiagoak egiteko ahalmena ematen digu.

—Zein da zure proiektu kuttuna?

—Momentuan esku artean daukagunak izan behar duela uste dut; berdin da etxe txikia izatea edo kriston eraikuntza.

—Besteak beste, Bilboko Club Deportivo-ko fatxada zuek egindakoa da.

—Bai, egin dugun lan gaxenatarikoa izan da; izan ere, kiroldegia funtzionatzen jarraitu zuen eta oso leku gutxi eduki genuen behar egiteko.

—Atzerrian ere lan egin duzue, ezta?

—Bai, Brasilen. Euskal Herriko bezero baten enkargua izan zen. Emaztea hangoa zuen eta oihanean “resort ekologiko” bat eraiki gura zuten. Lursailak ikuskatzera zaldiz joan behar genuen eta nonoiz ibaia uger eginez zeharkatu behar izan genuen biderik ez zegoelako. Oso ondo pasatu genuen, benetan!

«Esku artean daukagunak izan behar du norberaren proiektu kuttuna»

—Non gustatuko litzaizuke zerbait eraikitzea?

—Egia esateko ez dut horretan asko pentsatu... Agian Ibaizabal inguruan eta baita Getxon ere. Halere, azken horretan eraikitzea ia ezinezkoa da, ez dago-eta lekurik.

—Horren harira, zer uste duzu Andra Mariko eraikuntza planari buruz?

—Hain justu, ingurumenaren kontserbazioa eta etxebizitza edukitzeko beharra dira gure artean arazo garrantzitsuenetarikoa. Interes biei erantzun aproposa eskaini behar zaie, oreka bilatu. Lurraren kudeaketa oso garrantzitsua da; izan ere, ezin dugu daukagun lur apurra agortu. Beraz, beharrezkoa da lur hori ondo erabiltzea eta dentsitate handiko zonaldeak eraiki behar badira, oso ondo pentsatutako proiektu batez egitea. Egia da Getxon zerbait egitea beharrezkoa dela, baina astakeria izango litzateke etxe bakarrak egitea, lurzoru guztia betetzeaz gain, ez litzatekeelako biztanleriaren beharra aseko. Bien arteko bidea hartu beharko lukete. m

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Txarto asten dana eleite ondo akaba”



Ez da denpora asko dokumental baten ikus dotela zelan gaur egun Zeelanda Barri esaten dotsegun ugartetan, bertara heldu ziren lehenengo gizon-emakumek, hau da, pazifikoko Maorik, yateko nahie topa eudela: basoko pizti ugeri, atrapateko errazak. Baia atrapa ta atrapa, akaba eudezen danak, eta ordun zer? Ba, gerran hasi ziren bata besten kontrari yanarigeitik. Basoko piztik garbitu lehelengo, eta gero gerre egin. Hori ei da gizakin ixekere atxiñetik. Holan akabako ete dogu?

Esakeratu hau I. Gilisastin *Berba lapikokoa* liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere91

BERBA JATOR BATZUK (XXII)

Berbakere 87n eta aurreko beste batzuten aspalditik erderatik harturiko berba batzuk, hau da, maillegu batzuk, ikusi genduzen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak. Berbakere honetan azkeneko sorta ikusiko dogu.

• **tapa:** (ad.) Erderaz lez, *tapar* esateko erabilten da, baia ganera gure euskeran, sarri, norberak edo beste nonok egiñeko gaiztokeri edo sustantziabakokeri *disimulate* adirazoteko.

—*Guzurre esan dotso mañsuri beran laginekin egin daudena tãpateko.*

—*Hainbet injustizi dau bõrtik bõbetik baia euskaldumen kõtukez tãpaten daude dana.*

• **topa:** (ad.) On Quixoten sasoiko erderan lez, gure euskeran nonor edo zeozer *aurkitu* esateko erabilten da hau berbe.

—*Harro-harro ibili da beti baia oraingon kontrario ederra topa dau, ta bëlarrondoko bat edo bi èron dau berak bere.*

—*Goxen altxa ta lèntek tãpaten emoten dodaz eguneko lèhelengo minutuk.*

• **trapasari:** (iz.) Gauza gitxireko edo ezetarako balio ez daun gauze, baia behar ixen barik gordeten dana.

—*Merkealditera jon da Bilbona ta hainbet trapasariéz kargata etor da.*

—*Mõbille dala, mp3 dala, yoko elektronikuk direzela... Guk trapasari gitxiaugez ondo pozik biziten gintzen, ba!*

• **trãsto:** (izlg.) Egin behar ez dauzen gaiztokeritxuk egiten dauzen ume da *trasto*; (bat. *bihurri*).

—*Angèrutxu bet èmoten dau, baia egiten dau trastokeritran bat noxen behin.*

—*Umetan ondo trãstok ixenekok direz horrek.*

• **trõpèza:** (ad.) Nonor edo zeozer pentsa barik topa dala esateko erabilten da.

—*Apur bet edãnta urten daude tabernatik eta aĩtxégaz trõpèza dire kalen.*

• **usa:** (ad.) Zeozer beti modu baten egiteko jokera aukite edo hartze; (bat. *ohitu*).

—*Ordun ez gendun kalentadore ta kalefaziñorik aukiten, baia usãta egon gintzen hotza pásaten.*

—*Lèhelengo egun bietan apur bet kosta dako, baia gero laster usa da ama barik ikãstola lõtuten.*

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

IRATI

Torrene 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAURKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Kokotxak

pil-pilean

Lantzean behin gure betiko sukaldaritzako platerak gogoratu behar ditugu, gureak dira eta; gaurkoan, lebatz-kokotxak pil-pilean. Hasteko, ipini basazko kazolan oliba oliotan perrexila, berakatz (ondo txikituak), eta kokotxak. Gero piztu sua -eztia- eta apur bat irakin arte itxaron. Ondoren sutik atera kazola. Olio baztertu eta guztia hoztu arte itxaron. Gero kazolari eragiten diogun bitartean baztertutako oiloa apurka-apurka gehituz joan pil-pila lortu arte. Saltsa lodiegia lotzen bada, arrain salda edota ur apur bat gehitu. Kitto. On egin! m

osagaiak (lagun birentzat)

dozena bi kokotx • oliba olio • perrexila • berakatz • gatza




itsaso arana / jolastokikoa

Nebbiolo

mahatsa

Goazen oraingoan Italiako mahastietako bitxia ezagutzera: *nebbiolo* mahatsa. Batez ere Piamonten eta Lombardian lantzen da, hau da, Italiako ipar ekialdean. Mahats honen aleek -oso urdinak- ematen dituzten ardao gazteek gereziak, okaranak, eta bioletak ekartzen dituzte gogora; ardao zaharragoek berriz, alkitrana, erreak, keztatuak eta trufa zaporeak. Zahartzeko oso egokia da nebbiolo; izan ere, kiantza luzeetan -jeneralean Esloveniako haritza kupeletan egiten dena- lortzen ditu bere emaitzarik onenak. Piamonten egiten den ardao monobarietarik ezagunena *barolo* izenekoa da, Alpeak babesturiko eskualdean egiten dena. Oso ardao indartsua da, maskulinoa ere esaten zaio. XIX. mendean jaio zen barolo eta honen arrakastaren harira beste ardao batzuk egiten hasi ziren nebbiologaz. Esaterako luxuzko den *barbaresco* edota *gattinara*. Azkenik aipatu, Italiatik kanpo nebbiolo anekdota txiki bat baino ez dela Uruguain eta Kalifornian. m



Sagar denda

Produktu ekologikoak eta askoz gehiago



Mikel eta Monica Berger

Arkakaratsa, estragoia, drosera, ... beste leku askotan aurkitu ezin ditugun produktuak eskaintzen ditu Sagar dendak. Berger familiak martxan jarri zuen orain dela 24 urte, nekazaritza ekologikoaren filosofiarik aukera bat emanez. Azken urteotan asko garatu da sektore hau: "Hasieran zaila zen produktuak lortzea, elkarrekin esker ateratzen ginen aurrea. Gaur egun denetarik daukagu, nahiz eta ekoizleak enpresa txikiak diren".

Garbigailuarentzako jaboia, produktu kosmetikoak, kremak... den-dena ekologikoa, kimikoki landu barik eta animaliekin esperimentatu barik. Hala ere, jakiekin lan egiten dute batez ere. Garai eta behar berriek egokitu behar izan dira: "Geroz eta jende gehiago dago intolerantziak eta janariarekin erlazionatutako gaixotasunak ditue-

na. Orain, adibidez, zeliakoentzako produktuak saltzen ditugu".

Lehen baino jende gehiago animatzen da produktu ekologikoen mundua ezagutzera: "Orain dela urte batzuk, filosofia konkretu bat jarraitzen zutenak bakarrik hurbiltzen ziren; orain, elkarren artean oso ezberdinak diren bezeroak ditugu". Astean behin aholkulari bat hurbiltzen da: "Ez da medikua, naturista baizik. Irisa irakurtzen du eta horren arabera tratamendu bat edo beste aholkatzen du". Arrakasta handia du zerbitzu honek: "Aspaldi, kontsulta bat zuen Villamonten, baina utzi egin zuen. Jendea beragatik galdetzen zigun eta kontaktatzea lortu genuen". m

Mariandresena kalea 1
Tel.: 94 460 44 43

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskua
ALGORTA
94 430 76 96

G gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zeure buruari gehiegi esjijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atsedean handiagoa hartzea. Besteen laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nor daki? Agian, maitasuna ere piz daiteke zuon bion artean.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Emozionalki izugarriko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak estean duena gaitzestera eramane dezakeela. Ez izazu lagunak atzean ahaztu.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsonai azalpenak ematen hasia ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lan egitea, kalera iritea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekatuta zaudete. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebeharre.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak irudituko zaizkizu gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster guztiz sendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzazuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ez dakit ohartu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu jan baino lehen.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daiteke, eta zu bakardadera bultzatu.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaia txo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.



mungia

oKINdegia

*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

**KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA**



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Itxuraldatu. 2. Zerbaiten isekazko imitazioa. Ernaltzeko gaitasuna duen sexu. 3. Arabako eskualdea. Biltzen den labore edo fruitu kopurua. 4. Espirituak. 5. Nitrogenoaren ikurra. Zilarraren ikurra. Lehena eta azkena. Kontsonantea. 6. Afganistangoa. 7. Sindikatu abertzalea. Zero. Zerga ezaguna. 8. Hormak. Azkena eta lehena. 9. Betekada. Ahuntzaren ar. Kontsonantea. 10. Ergel. Haran.

Goitik behera

1. Txukuna, dotorea. Ipar, musu. 2. Ni ..., zura zara, hura da. Ahul, sendotasunik gabe. Bizkaiko udalerria, Ezkerraldean. 4. Dohakabe, zorigaitzoko. Kontsonantea. 5. Zuhaitzen beso. Kontsonantea. Trafiko eta aparkatze ordenantza. 6. 51. Trebeak. 7. Zaren hori. Rubidioaren ikurra. R bikoitza. 9. Bizk., arrastaka. Kontsonantea. 10. "...dakarrena, ... daroa. XI. hila-betea.

Soluzioak

O	R	H	A	V	O	I	N	O	I
R	R	E	K	A	V	K	O		
V	Z	K	A	T	E	H	V	P	
Z	E	B	O	B	V	L			
A	R	A	V	I	N	A	G	V	A
R	Z	A	G	A	N				
K	A	U	T	I	R	I	P	Z	I
A	T	Z	U	V	A	V	A	I	A
R	A	V	A	I	D	O	H	V	P
I	T	A	D	L	Z	A	L	N	A

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Jaiotzez gernikarra
- Punta Galea taldean ibilia
- Orainsu erretiratu da

> Aurrekoaren erantzuna: Auzkin Sierrauria

> Irabazlea: **Evaristo* (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalí erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



BENE MARKAIDAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Sopelako eskolako neskatilak, 1942

Hogei neskatila ageri dira goiko erretratuan, euren eskolaren aurrean, baina beste 35 falta dira. Zergatik? Batzuk gaixorik, beste batzuk baserriko lanetan, jantzi egokirik ez eskolara joateko... Gerra osteko urteak latzak eta gogorak izan ziren. Maistra ere falta da argazkian, Epifenia Pascual andrea, *Doña Epi* errioxarra. Egunero zerrenda pasatzean, euskarazko izenak (Miren, Maite...) gaztelaniara itzultzen zituen (Maria, Amada...) berak, jakina. Izena entzun eta neskatila bakoitzak "Servidora de Ustéd" erantzun behar izaten zuen. Gero Espainiako bandera altxatu eta *Cara al sol* kantatu behar zuten. Horixe ere egunero. Maistra horrekin ibilitakoek gauza on bat behintzat badaukate akorduan: Doña Epiren gozokiak. Izan ere, udan Logroñon Viuda de Solano kafesnedun karameluak -toffeeak- erosi eta ikasturte hasieran banatzen zizkien. Azkenik esan Sopelako eskola (Larrabasterran beste bat ere bazegoen, txikiagoa) *unitaria* hau (6-14 urtekoentzat) elizaren alboan zegoela, gaur egun autobus geltokia dagoen leku berean. m

Zutunik: Marisabel Fano, *Gardokikoa*; Alicia Zalbidea (GB), *Larrondokoa*; Anita Aristegi, *Palazio Barrikoa*; Miren Saitua, *Loroñonekoa*; Maitena Larrondo, *Villa Leonorrekoka*; Belen Bidauzarraga, *Bareñokoa*; Conchita Ayo, *Artatza Txikinenekoa*; Miren Aurre (GB), *Palaziokoa*; Maite Basterretxea, *Eleizaldekoa*.

Jesarrita: Purita Toyos (GB), *Larrondokoa*; Edurne Toyos, *Larrondokoa*; Miren Billalabeitia, *Manenekoa*; Clarita Momoitio, *Artatzakoa*; Miren Corbera, *Herreriakoa*; Elena Basterretxea, *Erripe Barrikoa*; Luchi Larrondo, *Villa Leonorrekoka*; Edurne Aldekoa, *Bareñokoa*; Marieli Landa, *Toki Ederrekoka*; Miren Basterretxea, *Artatza Torrekoka*; Bene Markaida, *Zalduondo Goikokoa*.

[aitormenak]

ITZIAR LAZKANO > Aktorea

“Ikutu maskulinoa duten emakume heroiak gustuko ditut”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Emakume langilea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Emma Thompsonen lan egiten duen batean, *Sentido y Sensibilidad*. Sekuentzia batekin maiteminduta gelditu nintzen.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ikutu maskulinoa duten emakume heroiak gustuko ditut; adibidez, Suediako Kristina erregina.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Gauza bera behin eta berriz errepikatzea, pixkat astuna naiz.

Aitor dezakezun bizio bat.

Ardo ona konpainia onean.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Kubara bueltatzea gustatuko litzaidake. Zilarrezko ezteiak ospatu nituen han eta asko gustatu zitzaidan. Herria eta jendea benetan ezagutzera bueltatuko nintzateke, turista izan gabe.

Zein da zure ametsetako bat?

Ez naiz oso ameslaria, baina bat esatekotan... atzerrian lan egitea film on batean, Johnny Deepekin adibidez.

Ikusi duzun azken filmari?

Dreamgirls. Asko gustatu zait, soul musikaren inguruko da eta musika hori izugarri gustatzen zait.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Nire familia gabe.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Traizioa, jendea leiala izatea gustatzen zait. Egia behar dut beti, beharbada ohore kontua da. m

LABURREAN— Portugaleten (Bizkaia) jaio zen Itziar Lazkano, nahiz eta aspaldian Bilbon bizi den semea eta senarrarekin batera. Gaztetan, Boluetako Komiko eskolan sartu zen eta bertan Ramon Barea izan zuen irakasle. Honek, antzerki talde batean parte hartzeko aukera eman zion eta, orduetik on, estenatokiz estenatoki ibili da. Antzerki aktorea dela argi daukan arren, telebista eta zine munduan ere lan nahikotxo egin du, *Aida* eta *Periodistas* telesailetan eta *Locos por el sexo* filman, besteak beste. Gaur egun, *Vaya Semanita* ETB 2ko umore saioan lanean dabil eta oso gustura dago bertan. Antzezteak asko irakatsi diola dio.



IRAUPEN eski ASTEBURUA



***Somporteko eski estazioan (Jaka)**
***Martxoaren 9tik 11ra**

Prezioa (*)

Bazkideek eta berbalagunek 100€ | Ez bazkideek 125€

(*)Autobusa, egonaldia (Droel Apart-hotolean), bi gosari, larunbateko afaria, forfaitak, 2 orduko ikastaroa euskaraz egunero, ekipo osoko alokairua eta aseguru.

Izen ematea

Martxoaren 2ra arte, telefonoz: 619 935 541 / 94 491 43 57

zein posta elektronikoz: egizugetxo@yahoo.com | www.blogari.net/egizu



EGIZU Getxo Euskaldun Elkarte

